

AIARALDEA *hemen*



JOSE RAMON ALEXANKO:
"Athleticen ere jartzen ninduten
aurrelari bezala, baina Johan Cruyffek
egin zuen hori ospetsu" 10-11 or.

KIROLA:
Denboraldian ereindako
garaipenak jasotzeko unea
heldu da 16-20 or.



Lapurreten atzeko errealitatea



AMURRIO 2

**Goya etxeko entsegu
lokalak hutsarazi nahi
dituztela salatu dute**
Bertako kideen arabera, udalak
20 egun eman dietela joateko

KULTURA 14

**Deus ez taldea garaile
Amurriock lehiaketaren
lehen edizioan**
Antolatzaileek positiboki
baloratu dute izandako harrera

ARAKALDO 3

**Guda zibileko
bonbardaketetan
hildakoak gogoan**
Plaka bat jarriko dute
ostiralean Arakaldon

KULTURA 15

**Film berria prestatzen ari
da Kepa Sojo zinemagilea**
Gasteizen bizi diren marokoar
batzuen istorioa kontatzen du



Arraindegia
ALDAMA
— LAUDIO —

Ezagutu
AldanAM platerrak
2 pauso erraz:
Zulatu, berotu eta on egin!
#aldamaGO

Zumalakarregi 37,
LAUDIO
608 46 61 34
94 672 62 07

MOBINER TAPIZERIA

Sofa tapizatzea eta konpontzea · Aulkiak · Bulego aulkiak · Kuxinak egitea
Tapizeria oihalak · Apar-goma neurriera moztea
Neurri guztietako koltxoi eta koltxonetak
Furgoneta eta karabanetarako koltxonetak neurriera

ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA

ESKATU
AURREKONTUA
KONPROMISORIK
GABE

Landaluze 33, LAUDIO · 94 672 80 52 · 677 24 74 31 · mobiner@hotmail.es

TXUKUN
estilistak

Estetika 945 38 44 20
Ekitaldietarako makillajea · Ezkongaienezako makillajea
Gorputz eta aurpegirako tratamendu pertsonalizatuak
Presoterapia · Egur-terapia · Masaje linfatikoak · Solariuma

Ileapandegia 945 38 42 61

Gernika Plaza, 2 48460 Urduña
txukunestilistak@gmail.com

f Txukun Estilistak

herriz herri

Amurrio

Goya etxeko entsegu lokalak hutsarazi nahi dituztela salatu dute



Amurrioko sarrerako errepidearen alboan dago Goya etxea. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Amurrioko Udalak Goya etxea hutsarazi nahi duela salatu dute eraikin horretan dauden entsegu lokaletako erabiltzaileek. “Haserreturik eta amorraturik” daudela adierazi dute, “udalak ehunka pertsonen ia hogeita hamar urtez egindako ibilbidea amaitutzat ematen duelako”.

Entsegu lokaletako kideek nabarmendu dute etxean “hamaiak pertsona, talde zein kolektibo” aritu direla “aktiboki lan egiten”. Hori dela eta, udalak herriko musika eszenarekiko duen “ezjakintasuna eta mespretxua” salatu nahi izan dute. “Ez du ahaleginik egin etxearen edo lokalen mantentze zein konponketan, ez ditu musika taldeen beharrak ezagutu ezta kontuan hartu eta gure proposamenei ere ez die jaramonik egin”.

20 eguneko epea joateko

Tokiko erakundearen azken egunetako jarrera ere kritikatu dute entsegu lokaletako kideek. “20 eguneko epea eman digute etxetik alde egiteko, azkarre-

gi, isilpean eta gure iritzia kontuan izangabe. Hori da euren kudeaketa sistema: adiskideentzat itxurak egitea eta gobernatzea, beti ere Amurrioko bake soziala irmo mantenduz”.

Era berean, udalaren jabetzako hainbat eraikin hutsik daudela salatu dute: Refor, Landazuri etxea, antzinako anbulategia eta merkatu zaharra, besteak beste. “Nahiago dute etxe huts eta hondatutak edukitzea, udalerrian kultur mugimendu garrantzitsua edukitzea baino”. Udalak “kultura librearekiko beldurra” duela uste dute Goya etxeko kideek, “beraien interesentzat arriskutsua izan daitekeelako”. Era berean, beste kultur elkarte batzuei tratu mesedegarriagoa ematea leporatu diote tokiko erakundeari: “Badakigu gobernuko alderdiei lotutako beste elkarte batzuek euren beharrianetarako beharrezkoak diren lokalak etalaguntzak arazorik gabe jasotzen dituztela”.

Horregatik guztiatik, “herriko beste musikari, musika talde zein kultur eragileak” animatu nahi izan dituzte Goya etxearen

alde egin eta “kultura libre eta espazio publiko eta autogestio-natuengatik” borrokatzera.

Udalak, bere aldetik, ez du momentuz gaiari buruzko adierazpenik egin nahi izan.

Ibilbide luzeko gatazka

Ibilbide luzea du Goya etxeak. Amurrioko Udalak baserri horretako zenbait gelatara bideratu zituen Refor industriagunean entseatzen zuten taldeak. Ondoren, bertan zeuden zenbait talde eta norbanakok etxe osoari erabilera bat ematea pentsatu zuten, baserriaren ukuilua zena okupatuz.

Modu horretan sortu zen La Kuadra espazio autogestionatua. Makina bat hitzaldi, kontzertu eta jarduera egin ziren bertan, harik eta 2011ko martxoan Ertzaintzak tokia indarrez hustu eta itxi zuen arte.

Udalak orduan jakinarazi zuen Goya etxe osoa hustu eta berehala botako zutela. Zazpi urte baino gehiago igaro dira ordutik hona, eta entsegu lokalak funtzionatzen jarraitu dute, hustu gabe geratzen zen baserriaren zatia bizirik mantenduz.

Kulturen arteko bazkaria egingo dute igandean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

“Kulturen arteko bazkaria” egingo dute Amurrioko ekainaren 24an -igandea-. Juan Urrutia plazan izango da zita eta, aurreratu dutenez, ez da otordu hutsa izango. “Egunaren hasieratik egongo gara janaria prestatzen herriko plazan, plaza pixka bat apaintzen, musika entzuten...”, azaldu dute Amurrioko zurrumurruen aurkako Bizilagunak taldeko kideek. Hirurak aldera bazkaltzea aurreikusi dute. Afrika iparraldeko estiloan prestatutako cous-cousa jango dute, entsalada eta mazedoniarekin batera. Bazkalostean, aldiz, “World Café” moduko bat egin nahi dute. “Mahai txikietan eseriko gara hainbat gauzei buruz hitz egiteko, elkar hobeto ezagutzeko”.

Bazkarian izena emateko ondorengo telefono zenbaki hauetakoren batera deitu edo

mezu bat bidali behar da: 690 226 900, 649 044 154 edo 628 571 547. Posta elektronikoa ere baliatu daiteke, paloma.gutierrez@cear-euskadi.org helbidera idatzita.

Horrez gain, argazki erakusketa bat atondu dute Bizilagunak taldeko kideek. Astelehenetik dago ikusgai Bañuetakiroldegiarensarrian, ekainaren 23ra arte.

Urtebeteko ibilbidea

Duela urtebete sortu zen Amurrioko taldea, CEAR erakundeak atzeritarren kontrako zurrumurruen aurka eginiko kanpaina baten bidez. “Hainbat hitzaldi, tailer eta ekintza egin ditugu”, azaldu dute taldeko kideek. Baina, nabarmendututenez, herriaren erdian bazkari bat egitea zen “ilusio gehien” sorrarazten zien ekintza. “Elkar ezagutzeko, esperientziak elkarbanatzeko eta hainbat zurrumurruekin bukatzeko” baliatu nahi dute ekimena.

7 gaztek lana aurkitzea eta beste bik negozio bat abiatu dute Hazilani esker

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Apirilean amaitu zen Hazilani programaren bigarren edizioa. Amurrio Bideanek jarri du abian egitasmo hori, “kalitatezko enplegu bila ari diren gazte kualifikatuak” prestatzeko. 14 gaztek hartu dute parte programan, eta horietako zazpi lortu dute lana. Beste bik negozio propioak jarri dituzte abian, eta gainontzeko bostak “enplegu bilaketa aktiboan” aritu dira.

Bi fasetan banatzen da programa. Lehena prestakuntzazkoa da. Bigarrena, aldiz, enpre-

sa batean praktikak egitean edo negozio bat sortzeko bideragarritasun plana egitean datza.

Hirugarren edizioa, urrian

Urriaren 2an abiatuko dute programaren hirugarren edizioa. Udalak jakinarazi du edizio horretan “ahalegin berezia” egingo dela gazteek euren praktikak gertuko enpresetan egin ditzaten, “ezagutza eskualdean gera dadin”.

945891721 telefono zenbakira deituta edo empresa@amurriobidean.org posta elektronikora mezu bat bidalita lortu daiteke egitasmoari buruzko informazio gehiago.

Arakaldo

Plaka bat jarriko dute, Guda Zibileko bonbardaketek hildako bizilagunen omenez

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Plaka bat jarriko dute ostiral honetan -ekainak 22- Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldoko udalek, 1937. urtean jazotako bonbardaketa faxistetan hildako auzokideen omenez. 19:30ean izango da zita, Arakaldoko Herriko Tabernan.

Lau bizilagunen izenak jasoko ditu plakak. Maria Luz Ginea Usategi da horietako bat. 25 urte zituela hil zen Ginea, haurdun zegoela. "Hegazkinak Urduñarantz zihoan tren bat bonbardatzearekin zioten

Aretan. Bidaiariak korrika hasi ziren baina bonbek Maria Luz eta identifikatu gabeko ume bat erail zituzten. Hala azaldu du Txomin Egiluzek. Historiazale arrankudiagarriak egin du Aiaraldean jazotako bonbardaketei buruzko ikerketa, Anton del Rio Bilbaoren lekukotzak baliatuta.

Egiluzen ikerketen arabera, 1937ko ekainaren 14an beste herriar bat hil zuten bonbek: Segundo Elezkano, 17 urteko gaztea. Miñoien kuartela bonbardatu zuten egun horretan, eta bertan zegoen Elezkano, miñoi baten semea baitzen. "Bonba

eraikinaren erdian erori zen eta metrallak erre kara jaurti zuen gaztea", azaldu du Egiluzek.

Bartzelonako bonbardaketa

Joseba Okeranzaren izena ere jasoko du ostiralean inauguratuko den plakak. Okeranza ez zen Aiaraldean zendu, Bartzelonan baizik. "Santanderren zegoen familia osoa, eta Bartzelonara ebakatu zituzten", aipatu du Egiluzek. 1939ko urtarrian hirian jazotako bonbardaketa batzuen ondorioz hil zen Okeranza. Balkoian arropa eskegitzen zegoen bonba erori zenean.

Okondo

"Okondo euskaraz" asteburuarekin bukatuko dute ekaina

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

"Okondo euskaraz" egitasmoa aurkeztu berri du udalak. Helburua euskarari bultzada ematea da, eta horretarako ekintza sorta proposatu dute. Ekainaren 29tik uztailaren 1era izango dira jarduerak, asteburu bakarrean.

Dantza izango da ostiralean nagusi. Izan ere, "Dantza kasting" saioa prestatu dute, familiei zuzendutako erromeria. 17:30ean hasiko da ikuskizuna, eta 20:00ak arte luzatuko da. Afari-dastaketa arinak hartuko dio lekukoa, 4 euroren truke erosi ahalko dira txartelak. In-

darrak berreskuratzean dantza-plazari ekingo diote, 21:00etan, hain zuzen.

Larunbatean, ekainaren 30ean, pilatu dituzte ekintza gehienak. 11:30ean "Bertatik bertara" ibilbide gidatua egongo da familientzat. Kultura Etxetik abiatuko dira, eta hamaiketako osasungarria eskainiko dute. Arratsaldean umeentzako tailerrak eta askaria eskainiko dituzte Okondogoieta Kultura Etxean. 20:30ean, aldiz, Itzalde abesbatzaren kontzertua egongo da San Bartolome elizan.

Igandean, aldiz, Laidako hondartzara egingo dute txangoa. Ekainaren 27a izango da izena emateko azken eguna.

Lea ibilbidea, historia eta natura uztartzen dituen txango erraz bezain bizia

Laburra bezain bizia da Lea ibaia. Munitibarren jaiotzen da, Oiz mendiaren ipar isurialdean. Aulesti, Gizaburuaga eta beste hainbat herri zeharkatzen ditu, Lekeitio hiltzeko gero. Gertutik jarraitu daiteke ibaiaren ibilbidea, horretarako egokitutako bide bat baitago: Lea ibilbidea. 23 kilometroko luzera du eta 8 ordu eta 20 minututan egin daiteke.

Ondare natural eta historiko handiko bidea da. Erromatarren garaiko zein Erdi Aroko hain-

bat aztarna arkeologiko topatu daitezke. Horien artean dau de Mendezako Marierrota -marearen gorabeherekin funtzionatzen zuena-, Gizaburugako Bengolea burdinola, Bengolea dorretxea edota Angizeko burdinola-errota.

Gauzak hala, udako egun osoko plan baterako aukera ezin hobea izan daiteke Lea ibilbidea: Munitibarren goizean hasi, arratsalde aldera Lekeitiora iritsi eta herriak eskaintzen dituen bestelako aukerez gozatzeko.



Ondare natural eta historiko handia du Lea ibilbidea. Iker Etzebarria Urkaregi



mendexa
ABENTURA PARK

Tirolinak eta abentura parkea
zuhaitzetan

Erabiltzeko epea:
2018/07/31

*Pertsonako behin erabiltzeko

AURREZTU
1€



Leagi Auzoa - Mendexa - Bizkaia - 688 85 62 83 - www.mendexapark.com - info@mendexapark.com




herriz herri

Laudio

Bisita antzeztuak egingo udan dituzte Ermualdeko aztarnategian

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Uda bizia izango da aurten Ermualden. Indusketen fase berri bati ekin zioten iragan astean. “Kanpainarik luzeena izango da aurtengoa, uztailaren 20ra arte egongo baikara lanean”, adierazi du Sergio Escribanok. Arkeologo audioarrak azaldu du iaz eginiko lanean sakontzea izango dutela helburu. “Aurreko urteetan topatutako harresia eta eskailerak lurpetik ateratzen jarraituko dugu”. Escribanok nabarmendu du Ermualdeko kasua “oso ezohikoa” dela. “Antzinaran material ia guztiak biriziklatzen ziren. Kasu honetan, baina, eliza zaharraren gainean eraiki zuten eliza berria”.

Bisita antzeztuak

Bisita antzeztuak eskainiko dituzte Ermualden, indusketek iraun bitartean. Ekainaren 22an izango da lehen saioa -euskaraz-, 20:30ean. Hilaren 29an gazte-raz eskainiko dute bisita antzeztua, ordu berean. Uztailean ere



Iazko indusketei jarraipena emango diete aurten. Aiaraldea.eus

emanaldi ugari eskainiko dute, 19:30ean guztiak: 7an -gazte-raz-, 8an -euskaraz-, 14an -euskaraz-, 15ean -gazte-raz-, 21ean -gazte-raz- eta 22an -euskaraz-.

Bisitetan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurretik izena ematea, Kultur Etxera bertaratu eta 944034920 telefonora deituta.

Sapo producciones antzerki taldea arduratuko da Ermualdeko indusketetetan oinarritutako eszenak taularatzeaz. “Guk

emandako datuak baliatu dituzte eszenak osatzeko. Oso ikuskitun berezia atondu dute”, ziurtatu du Escribanok.

Gaur egungo eliza XV. mendekoa da. Eraikinaren azpian topatu dituzte santutegi zaharragoen arrastoak. XIII. mendeko bat aurkitu dute, eta baita zaharrago bat ere, XI-XII. mendekoa. “Karbono 14arekin tratatzera eramango ditugu hainbat elementu, euren antzinatasuna zehazteko”, jakinarazi du Escribanok.

EH Bildu: “Laudio eta Amurrio baztertzen ari da Foru Aldundia gizarte zerbitzuen finantziazioan”

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Laudioko EHBilduko udal gobernu taldeak mozioa prestatu du udalbatzan eztabaidatzeko. Isabel Boveda zinegotziak azaldu duenez, Arabako Foru Aldundia hasi da gizarte zerbitzuko finantziazioa adosten landa eremuko zenbait udalerrirekin -Okondo, Artziniega eta Aiara- eta kuadrillekin -Lautada eta Errioxa-.

Koalizioak adierazi du hitzarmen berriak bermatuko duela 3.000-4.000 biztanleko gizarte langile bat egotea, Aldundiak ordainduta. Zentzu horretan, gogoratu du landa eremuko esparruaren barruan daudela Laudio eta Amurrio ere.

Gauzak horrela, aurreko hitzarmena oraindik indarrean duten erakundeetan -2003an sinatuak- Foru Aldundiak soilik finantzatzen ditu gizarte langile eta administrari banaren soldaten %80.

Ondorioz, EH Bilduk eskatu du egungo langile guztien gastuak bere gain hartzea Arabako Foru Aldundiak, hau da, 5 gizarte langile eta 2 administrari. Izan ere, koalizioaren aburuz, hordamodua legedi bikoitza ez ezartzeko esparru horretan eta udal guztiek tratatu bera jasotzeko. Isabel Bovedak azpimarratu du gizarte zerbitzuetan gero eta inbertsio handiagoa egin behar dutela Laudion, beharrei moldatzeko.

Bost langile kontratatuko ditu udalak enplegu programaren bigarren faserako

Uztailean abiaraziko du Laudio-ko Udalak enplegu programaren bigarren fasea. Gutxienez bost pertsona sei hilabetez kontratatzea da tokiko erakundearen asmoa, herriko ibaietako ertzak garbitzeko. “Udalak bere baliabide propioekin finantzatuko du programa”, azaldu du Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak, “920.645 euro bideratuko ditugu guztira”.

Tokiko Garapen Agentziaren beste ekimen batzuen berri eman du Martinezek. Bi webgune plaza-ratu dituzte: audiogroup.eus eta investinludio.com. Laudio Group enpresa-taldearen ataria da lehena. Bigarren webgunean, aldiz, herriko zoru industrial eta libre dauden pabilioiak behatu daitezke.

Aritz Fernandez de Agirre Gomez eta Ekain Aretxaga Martin garaile jaien kartel lehiaketan



Ekain Aretxaga Martin eta Aritz Fernandez de Agirre Gomez. Aiaraldea.eus

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Aritz Fernandez de Agirre Gomez gailendu da jaietako kartel lehiaketa nagusien kategorian eta Ekain Aretxaga Martin, aldiz, umeenean. Biak dira Laudiokoak. Fernandez de Agirrek 30 urte ditu eta Baldarrak jai koadrilako kidea da. Aretxagak, aldiz, 12 urte ditu eta Latorro Ikastetxean ikasten du.

Gauzak hala, Fernandez de Agirrek eginiko irudia baliatuko da aurtengo sanrokeen kar-

tel ofizial gisa. Aurtengoa ez da diseinatzaile audioarraren estreinako aldia, 2012an ere berak eginiko diseinu bat hautatu baitzuten kartel gisa baliatzeko.

“Guztion jaiak”

Guztion jaia da kartelaren izenburua. Fernandez de Agirrek nabarmendu du oso kartel inklusiboa egiten saiatu dela, jaietako ahaliketa elementu gehien sartuaz. “Ez da ez le-maren puntu morea eta LGT-BIQ mugimenduaren ortzadarrak sartu ditut, besteak beste”.

Latorro Ikastetxeko amiantoa 2019-2020. urteetan kenduko dutela jakinarazi du Hezkuntza Ordezkaritzak

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Latorro Ikastetxeko amiantoaren aferak amaiera-data du. Hala adierazi du Hezkuntza Ordezkaritzak. Ikastetxeko eskola kontseiluko kideekin bildu zen Arabako Hezkuntza Ordezkaria den Blanca Guerrero iragan astean.

Egun Latorro Ikastetxean da goen amiantoa eraikinaren sabaietan kokatzen dela azaldu zuen Guerrerok bilera horretan, eta jakinarazi zuen datorren urtean ekingo diotela material hori kentzeari, prozesua 2020. urte-

ra arte luzatu daitekeen arren.

Modu horretan, amaiera emango litzaioke duela bi urte hasitako prozesuari. 2016ko abenduan ikastetxean zeuden amianto-zko jardinerak kendu zituen enpresa espezializatu batek, udalak hala eskatuta. 2017ko udan, aldiz, ikastetxeko pasabide batean teilatu funtzioa egiten zuten uralitazko -amianto- eginiko- hainbat plaka kendu zituzten. Baina bazegoen oraindik toki bat ikastetxean minbizia eragiten duen mineral horrekin: eskolako sabaia. Hori da 2020rako kentzeko asmoa du tena.

Orozko

Dantza eta antzerkia batuko dira plazan ekainaren 29an

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Sagartu obra eskainiko du Hika Teatroa konpainiak Oin-kariak dantza taldearekin batera Orozkon, datorren ekainaren

29an, Kale Antzerki Aroa jaialdiaren VII. edizioan. Dantza, musika eta antzerkia uztartuko dituzte. Zubiaur plazan izango da zita, 20:30ean. Agurtzane Intxaurraga antzezle orozkoarra da obraren zuzendaria.

Aiara

Luiaondon amaitu dute errefuxiatuen aldeko elkartasun maratoia



Errefuxiatuen aldeko adierazpena irakurri zuten frontoian. **Aiarako Udala**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Errefuxiatuen aldeko ekimena egin zuten iragan larunbatean Luiaondon. Mendi ibilaldiarekin hasi zen eguna, eta azoka, argazki-erakusketa, herri bazkaria, zunba saioa eta

kontzertuak egin zituzten gero, frontoian.

Bildutako dirua, Greziara

Egunean bildutako dirua Greziako errefuxiatuekin lan egingen duen Himaya gobernuz kanpoko erakundeari eman-
go diote.



Herria doluan eta kalean, bi beharginen heriotzagatik

Ekainaren 8an zendu zen harrobian istripua izan zuen bigarren behargina. Gauzak hala, ehunka herritar atera ziren kalera iragan astean, bi langileen heriotza salatu eta "lan-istripurik gabeko etorkizuna" aldarrikatzeko.

Gure Esku Dagoren giza katean ere izan zuen isla gertaerak. Goiz hartan izan zen bigarren langileen hileta. Horregatik, orozkoarrek lazo beltza izan zuten soinean giza-katean.



Ehunka herritar batu ziren herrian egin zen mobilizazioa. **Andres Larrinaga**

KOMUNIKABIDE EUSKALDUN INDEPENDENTE ETA HERRITARREN ALDE EGIN ZAITEZ BAZKIDE

AIARALDEA EKINTZEN

FAK
TO-
RIA

izan



www.faktoria.eus

herriz herri

Artziniega



**ALBERTO MARTINEZ
GUTIERREZ-BARQUIN**

Izenarekin bueltan

Nagusi batek esan zidan behin, Artziniega ezagutzen zela "mila izen duen herria" lez. Erraparatzen badugu artxibo historikoetan, hala da. Gure herriaren izena hamaika modutan idatzita topatu dut, Alfonso Xk herri-gutuna eman zionetik gaur egun arte: Harziniega, Arçeniega... Aldaera gramatikal bakarrak, Hrekin edo gabe, hirugarren kontsonante-ko Z, C edo Ç eta E edo I; salbuespenak salbuespen, ematen dira.

Azken udalbatzan, PPko zinegotziak mozio bat aurkeztu zuen eskatzeko izen aldaketak ekarri zuen egoera anormal hori zuzendu zedila, gaztelaniazko izena berreskuratuz. Horren harira xehetasun batzuk eman nahiko nituzke.

1985. urtean, gehien-
go osoz, eta izapide legal guztiak jarraituz, erabaki zen Artziniega zela gure herriaren izen ofiziala eta bakarra. Izena Euskaltzaindiak eman zuen 1981. urtean, garaiko euskaldunek hala ahoskatzzen zutela iritzita. Euskaltzaindiak egin zuena, izena gaurko grafiara moldatzea izan zen, fonetika aldatu gabe.

Niri berdin zait bata edo bestea jarri. Baina ez nuke nahiko erro bera duen izen bat bi eratan jartzea. Gure herriaren izena ez da euskaraz edo gaztelainaz. Gainera, bertako euskara galdu zenetik mende bat igaro ostean, oraindik Arciniega deitzen zuten. Hala ikusi daiteke agiri historikoetan. Arzeniega, euskal forma bezala ere erabili zuten.

Artziniega Museoaren etorkizuna landu dute udalbatzan



Artziniega Museoa zenbait zailtasun ekonomikoren aurrean dago, gida-lanak egiten dituzten beharginen hitzarmen kolektiboa eguneratu ostean. Horren ondorioz, soldatak igo behar zaizkie, eta gastuak ez zegoen aurrekontuetan jasota.

Horrek kolokan jarri du etnografia museoaren jasagarritasun ekonomikoa, baina ekaineko udal osoko bilkuran behin-behineko konponbidea adostu dute. Printzipioz, bisitarien sarrerak Arteak Elkartera, hau da, egitasmoa kudeatzen duen taldera, bideratuko dituzte.

Alkateak eta elkarteak adostutako proposamena izan da hori, baina hurrengo urterako mahai gainean jarri dute alderdi guztiek udalaren eta elkartearen arteko akordioa aztertu eta eguneratu behar dela. Udal gobernu taldearen proposamena da Artziniega-ko Udalak hartzea bere gain museoaren kudeaketa.

Adostasun falta

Gaur akordioa lortu bada ere, eztabaida luzea egon da oposizioaren eta EAJren artean gaiaren harira. PPk leporatu dio alkateari hitza ez betetzea eta elkartearekin ez hitz egitea udalbatza baino lehen, hala egingo zuela agindu arren.

EH Bilduk gehitu du horrelako jarrerak ez dutela errazten udalaren eta elkartearen arteko beharrezko konfiantza proiektuaren jarraikortasuna bermatzeko. Gainera, adierazi du udalak museoan esku hartu baino lehen hainbat gai argitu behar direla; besteak beste, elkarteak nola utzi ditzakeen berari norbanakoek lagatako piezak.

Urduña

Urduñan egingo da Bizkaiko Abesbatzen Topaketa

Urduñan egingo da datorren urteko Bizkaiko Abesbatzen Topaketa. Galdakaon egin da aurten, eta bertan jaso dute urduñarrek antolakuntzaren lekukoa. Oso hitzordu jendetsua izan ohi da topaketa hori. Galdakaoko zitara 49 abesbatza bertaratu ziren, 1.200 abeslari baino gehiago. Datorren urtea, gainera, berezia izango da urduñarrentzat, Urduñako Abesbatza Elkartearen 50. urteurrena ere ospatuko baitute.



Galdakaon jaso zuten urduñarrek lekukoa. Urduñako Udala

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zure argazkia irailak 21 aurretik

@aiaraldeia

688848152

**BOZKATZEKO
EPEA** irailak
22-30

SARIA

Aiaraldeia.eus-en boto gehien jasotzen dituen argazkiarentzat **Las casas de las cascadas** etxean 2 lagunentzat gau bateko egonaldia

Aiaraldea

Eskatutako aldaketak egin gabe hasi nahi ditu Aldundiak Saratxoko obrak 2019an

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ekainaren hasieran eztabaidatu zen proiektua Arabako Batzar Nagusietan eta Josu Lopez Ubierna Bide eta Mugikortasun Diputatuak azaldu zuen Foru Aldundiaren asmoa dela 2019ko udaberrian A-625 errepideko obrak hastea.

Udazkenean esleipena egin nahi dute horretarako. Hala eta guztiz ere, polemika ez da baretu iragarpen horrekin. Izan ere, Aldundiak zenbait aldaketa egin baditu ere -6.500 metro karra-tu gutxiago okupatzeko proiektuak-, zuzenketa garrantzitsue-na ez du jaso. Saratxo Bizirik plataformak, Amurrioko Udala-ren babesarekin, eskatu zion era-

kunde foralari errotonda jartzea, lur okupazioa nabarmen murriz-teko.

Hainbat iritzi

Josu Lopez Ubiernak, ordea, adierazi zuen neurri hori ez dela araudira moldatzen eta baztertu egin du. Dani Trujillano Amurrioko Podemoseko batzarkideak, aldiz, uste du glorieta jartzearen ideia guztiz legezkoa dela: "hainbat adibide ditugu hemendik gertu, Arrigorriagan, adibidez". Ondorioz, ekimen gehiago abiatu-ko du aldaketa jaso dezan A-625 errepideko proiektuak. Trujillanok kritikatu du Amurrioko Uda-larekin eta Saratxoko Adminis-trazio Batzarrarekin hitz egin gabe iragarri dutela obrak has-teko asmoa dutela.

Energia diagnostiko bat abiaraziko du Udalbiltzak Aiaraldean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Energia diagnostiko bat egin-go du Udalbiltza patzuegoak Aiaraldean, "energia burujabe-tzaren aldeko pausoak" ema-teko xedearekin. Udalbiltzako Ikerbiltza proiektuko kideak eta Gipuzkoako Ingenieritza Esko-lako 4. mailako ikasleak aritu-ko dira elkarlanean. 2018-2019 ikasturtetik aurrera egingo dute azterketa.

Bi zati

Proiektuak bi zati izango ditu. Eskualdeko tokiko balibaideen azterketa egingo dute lehenbi-zi, eta eraginkortasun plana ga-ratuko lukete gero.

Euskal Herriko Unibertsita-

tean sortzen den jakintza udal eremuetan aplikatzea eta prak-tikan jartzea da Ikerbiltzaren xe-dea. "Dagoeneko hainbat ikas-turte martxan daramatza pro-grama honek eta egun, Euskal Herriko unibertsitateetan ikas-keak burutzen dituzten ikas-le batzuk udaletan egin dituzte euren gradu amaierako proiektuak udal horiek izanditzaketen behar edo erronken inguruan euren lanak gauzatuz", azaldu dute Udalbiltzako kideek.

Gaur egun hiru lan-il-do jorratzen ditu Ikerbiltza programak: Gizarte Ekonomia eta Eraldatzailea, Elikadura burujabetza eta Energia Burujabetza. "Azken eremu honetan kokatzen da Aiaraldeko proiektua".

Nerbioiko saneamendu lanak 2019an hasi nahi dituzte

Espainiako Sustapen Minis-terioak abuztuko esleipena be-teko balu, 2019ko lehen hiru hi-labetetan hasiko lirateke Ner-bioiko araztegien obrak. Hori adierazi zuen Iñaki Arriola PSE-EEko Ingurumen Sailburuak Eusko Legebiltzarrean.

Markixana eta Basaurbe-ko araztegiak eraikitze-ko lanek oztopo gehiago gaitu beharko dituzte. Izan ere, 375 lursail desjabetu beharko di-tuzte eta horien artean soilik 36 dira jabego publikokoak. Eragiketa horiek gauzatzeko URA Agentziak 2,5 milioi eu-roko aurrekontua dauka. Prin-tzipioz, esleitu beharra dagoen proiektuak 70,44 milioi euroko gastua exijituko du. Basaurbe-ko araztegiak 15,19 milioi euro balioko du eta Markixanakoak, ordea, 15,58 milioi.

ETA ZU, NOLA INFORMATUKO ZARA 2048AN?

GEROA ZUGAN **berria**
#BERRIAK15

erreportajea

Azkenaldian eskualdean lapurreta ugari egon direla dirudi, hainbat kasu agertu baitira komunikabideetan. Datuek, baina, oso bestelako errealitatea erakusten dute: Euskal Autonomia Erkidegoko kriminalitate tasarik baxuenetakoa du Aiaraldeak. Iaz

25,6 delitu jazo ziren 1.000 biztanleko, eta EAEko batez bestekoa 12 puntu altuagoa da. Hori ondorioztatzen du, besteak beste, Laudioko Ertzain Etxeak eskualdeko udalekin partekatutako txostenak.

EAEko kriminalitate tasarik baxuenetakoa du Aiaraldeak



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Azkenaldian badirudi lapurreta asko egon direla eskualdean. Apirilean eta maiatzean hainbat kasu jaso ziren hedabideetan, Laudio, Areta eta Orozkoko zenbait establezimendu eta etxebizitzetan jazotakoak. Baina komunikabideek -Aiaraldea hedabidea barne- unean-une plazaratutako titularretatik harago bagoaz, errealitatea oso bestelakoa dela ikusi daiteke.

Datuen arabera, eskualdean ez dira lapurreta asko egiten. Hain justu kontrakoa gertatzen dela esan daiteke, EAEko kriminalitate tasarik baxuenetakoa baitu Aiaraldeak. Hala dio Laudioko Ertzain Etxeak eskualdeko udalei aurkeztutako memoriak. Iaz 25,6 delitu erregistratu ziren eskualdean 1.000 biztanleko, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren arabera. Gauzak hala, EAEko batz bestekoa baino 12 puntu baxuagoa izan zen Aiaraldeko kriminalitate-tasa.

“Eboluzio logikoa”

Egia da 2016ko datuekin alderatuta gora egin duela kopuruak, urte horretan 22,08 delitu egon baitziren 1.000 biztanleko. Igogera orokorra izan da, Araba, Bizkaia eta EAEko batz besteko tasak ere handitu egin baitira urte batetik bestera.

Hala ere, 2015eko datuekin alderatuta, beherakada bat eman dela esan daiteke, urte horretan 27,17koa izan baitzen tasa. Laudioko Ertzain Etxearen aburuz, gorakada eta beherakada horiek “eboluzio logiko bati” erantzuten diote.

Beherakada nabarmena

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak helarazitako datuetatik ere ondorio interesgarriak atera

Joera aldaketa eman da lapurretetan. Jaitsi egin da etxebizitzetan eta enpresetan ematen diren kasuen kopurua, bestelako lokaletan jazotzen diren mesedetan

Handitu egin da iruzurren salaketa kopurua; internet bidez egiten dira gehienak

Beherakada nabarmena eman da lapurreta kopuruan. 2013an 192 salaketa egon ziren. 2017an, aldiz, 114

daitezke. Estatistika horien arabera, beherakada nabarmena egon da eskualdean jazotako lapurreta kopuruan. 2013an 192 salaketa egon ziren Aiaraldean. 2017an, aldiz, 114.

Arestian aipatutako joera aldaketa berdina ikusi daiteke datu horietan. 2013an jazotako lapurreta gehienak -97- etxebizitzetan izan ziren. 2017an, aldiz, saltokietan edo bestelako espazio itxietan izan ziren kasu gehienak -60-. Enpresetan ematen diren lapurretak dira gehien gutxiagotu direnak: 2013an 48 salaketa egon ziren eskualdean eta iaz, aldiz, soilik zazpi.

Iruzurrek gora

Lapurretei dagokionez, joera aldaketa bat egon dela nabarmentzen du Laudioko Ertzain etxeko txostenak. Behera egin du etxeetan eta enpresetan jazotzen diren lapurreten kopuruak, beste lokal batzuetan ematen diren kaltetan. Iruzurren salaketa kopuruak ere egin du gora; gehienak internet bidez gauzatzen direla ondorioztatzen du poliziak. Droga trafikoa dagokionez, ates-tatu kopurua handitu dela aipatzen da txostenean.

Trafikoa

Trafikoa lotutako hainbat datu jasotzen ditu baita ere memoriak. 2017an aurreko urtean baino pertsona gutxiago atzeman zituzten alkohol-tasa gaindituta gidatzen. Baina gidari gehiago detektatu zituzten bestelako droga batzuk kontsumitu ostean gidatzen.

Trafiko istripuei dagokionez, hildakoen kopurua jaitsi egin da, txostenaren arabera. Hala ere, A-625, A-624 eta BI-625 errepideek jarraitzen dute “gunerik gatazkatsuenak” izaten. Hori dela eta, kontrol prebentiboak egiten jarraituko dute bide horietako punturik arriskutsuenetan.

25,6
delitu
erregistratu
ziren iaz
Aiaraldean
1.000
biztanleko

12
puntu
baxuagoa da
delitu-tasa
Aiaraldean,
EAEko batez
bestekoarekin
alderatuta

Azken hilabeteetako kasuak

URTARRILA
Errege gaua baliatuta
hiru etxetan egin
zituzten lapurretak.

Gizonezko bat atxilotu
zuten Amurion labana
erabiltzaile lapurreta
egiteagatik.

Lapurretak egin zituzten
Laudio eta Amurrioko
etxebizitzetan banatan.

Bi gazte atxilotu
zituzten Arrankudiagan
lapurtzeagatik

APIRILA
Laudioko Quintana
gozotegian, Gorka
tabernan eta Orozkoko
Eneko tabernan lapurtu
zuten



MAIATZA
Aretako Otarte
okindegian, Orozkoko
Eroskian eta Gardeako
txalet batean lapurtu
zuten

Udako oporrei begira, etxea lapurretetatik prebenitzeko hainbat gomendio

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Hainbat gomendio eman
ditu Ertzaintzak etxebizitze-
tan eman daitezkeen lapurre-
tak prebenitzeko, udako opo-
rrei begira. Etxeko sarrerari be-
giratu bat ematean datza ahol-
ku horietako bat.

Lapur askok pegatina edo pa-
per txikiak jartzen dituzte atee-
tan, etxebizitza barruan norma-
lean norbait dagoen jakiteko.
Halakorik ikusiz gero poliziari
hots egitea da komenigarriena.

Badaude oso begien bistako
gomendioak, atea giltzaz ixtea
kasu. Gomendagarria izan dai-
teke ere etxebizitzan norbait da-
goelako ustea zabaltzea.

Hori egiteko hainbat modu
daude: lagun bati eskatu ahal
zaio postontzira iristen diren
gutunak jasotzea, pertsiana-
ren bat erdi-zabalik utzi daite-
ke, telefono finkoa mugikorrera
desbideratu daiteke edo arropa-



Lapur askok pegatina edo paper txikiak jartzen dituzte etxeen ateetan. Aiaraldea.eus

ren bat balkoian eskegi daiteke,
etxebizitzaren barruan norbait
dagoelako irudipena emateko.

Sare sozialak

Sare sozialetan jartzen den
informazioak ere badu garran-
tzia, Ertzaintzaren aburuz. Ez
da komeni oporretan goaze-
la lau haizetara zabaltzea, in-
formazio hori lapurren eskue-

tara iritsi daitekeelako. Etxera
itzultzerakoan zerbait susma-
garria ikustekotan, honakoa da
Ertzaintzaren aholkua: etxetik
irten eta poliziari segituan dei-
tzea. Lapurreta bat eman dela
ikustekotan, aldiz, komeniga-
rria da ezer ez ukitzea eta dena
zegoen bezala uztea, gero abia-
tu daitezkeen ikerketa poliziala
ez oztopatzeko.

EUSKADIKO
ERRESERBA
NATURALA

Red Natura
2000
Araba

29 naturagune
babestuta
MENDIAK, IBIAIAK, HEZEGUNEA, BASOAK,
LARREAK, PARKE NATURALAK, HARKAIZTIAK...

elkarrizketa

“FC Barcelonaren egungo eredua barneratzeko bi urte behar izan genituen”

JOSE RAMON ALEXANKO IZAN DA, DUDARIK GABE, LAUDIOKO FUTBOL HARROBIAK EMAN DUEN JOKALARIRIK EZAGUNENA. VILLOSA TALDEAN HASI ZUEN BERE IBILBIDEA ETA FC BARCELONAREKIN EUROPAKO KOPA ALTXTAZERA HELDU ZEN, KAPITAIN LANETAN, GAINERA. BIZITZA OSOA EMAN DU KIROLEAN, ETA ORAINDIK ERE MANTENTZEN DU LOTURA.



Testua
Aitor Aspuru Saez

Futbolak hainbat herrialdetara eraman zaitu, baina lehenengo urratsak Laudion eman zenituen. Zer oroitzapen dituzu?

Nire lehenengo oroitzapenak futbolaren munduan Laudiori lotuta daude, nire aitak herrira eraman baininduen. Hortik aurrera gauzak oso ondo atera ziren eta gero Athletic Clubak fitxatu ninduen. Hori bai, dena hasi zen Villosan eta horretan erabakigarria izan zen Laudio.

SD Laudio edo Villosan jokatu ostean, Athletic Clubak Alavesen esku utzi zituen. Baina berehala itzuli zinen Athleticera. Nolako izan zen klub profesional batean hastea?

Bai, bizpahiru jokalaria laga zituen Athleticek eta niri Alaves egokitu zitzaidan. Egia esan, gustura joan nintzen, baina 4 partida jokatu eta gero berreskuratu ninduten. Zorte handia izan nuen, prestatuta egon ez ezik, gauzak ere ondo atera zitzaizkidan eta.

Athletic Cluben jokalaria oso garrantzitsuekin aritu zinen; Iribarrekin, besteak beste.

Bai, garai horretan jokalaria gazte bat nintzen, talde nagusira heldu berria. Aldagelako txoko batean jartzen nintzen, inork ezer ez esateko. Garai horretako Athletic Clubeko jokalaria batzuk kondaira hutsa ziren. Kikilduta sentitzen nintzen eta oso esanekoa nintzen. Beteranoek agintzen zigutena betetzen genuen. Oso ondo egon zen. Iribarrekin jokatu nuen 4 urtez.

1980an FC Barcelonak 100 milioi pezeta ordaindu zituen zu fitxatzeko. Nolako izan zen Cruyff heldu baino lehen bizi izan zenuen aroa?

Nik ez nuen espero Barçak ni deitzea. Are gehiago, beste klub batzuen interesa ezagutzen nuen. Edonola ere, Italiara joatear geunden Eurokopa jokatzeko eta Duñabeitiaren eskutik agertu zen FC Barcelona. Athletic Clubak dirutza eskatu zuen nire truke, ziurrenik Barçak ezezkoa emateko, baina fitxatu ninduten.

Can Barçara heldu nintzenerako jokalaria ezagutzen nituen selekzioan aritzeagatik. Hala ere, lehenengo urte horietan FC Barcelonak ez zuen lorpen oso garrantzitsurik eskuratu.

Ni oso errotuta nengoen Athleticen eta handi samarra egiten zitzaidan hara joatea. Berez, batzuetan kideei galdetzen nien zer egin behar nuen.

“Nire lehenengo oroitzapenak futbolaren munduan Laudiora lotuta daude”



Azkenik, jokoan zegoen dirutza ikusita, ulertu nuen bi aldeen mesederako zela operazioa eta joan nintzen.

Athletic Clubean ez bezala, aldagelara beste modu batean heldu zinen, ezta?

Bai, ezberdina izan zen, nagusiagoa nintzen eta jokarlari guztiak ezagutzen nituen. Hala eta guztiz ere, Barçaren tamaina bestelakoa zen eta nahiz eta kideak ezagutzeak aldaketa erraztu zidan, ezberdina zen diroa: prentsarekin, esaterako.

Ondo moldatu nintzen eta ohitu nintzen fitxajeak ikustera. Adibidez, Maradona Barçara etorri zenean, ni baneramatzan urte batzuk. Guztiok geunden oso adi, munduko jokalaririk onena fitxatu baitzen, eta gurekin egondako denbora apurrean izugarri ondo portatu zen.

Geroago Schuster etorri zen, eta beste batzuk. Urte horietan bi atzerritarrek bakarrik jokatu ahal zuten talde bakoitzean, eta urtero baten bat berria heltzen zen.

Oso ezaguna egin zinen, besteak beste, Johan Cruyffek erabiltzen zintuelako galtzen ari ziren partiden azkenengo uneetan aurrelari lanetan jokatzeko. Oroitzen duzu bereziki horietako golen bat?

Johan Cruyffek egiten zuen edozein gauza une horietan

askoz gehiago goraipatzen zuten, baina egia da hori ez zela nirekin asmatu. Athletic Clubean egiten nuen, eta selekzioan egiten zuten. Galtzen ari ginenean atzelari garaia erabiltzen zen golak sartzeko, baldin eta buruz ondo errematatzen bazuen.

Nik uste talde guztietan egiten dela, baina Johanek egiten zuenez, eta noizbait ondo atera zenez, ospetsua egin zen.

Johan Cruyffek sekulako eragina izan zuen FC Barcelonan eta klubaren historia aldatu du, zuek nola bizi zenuten hasieran?

Aldaketa oso garrantzitsua sentitu genuen; entrenamenduak, denborak, funtzionamendua, nola erabili pilota, nola egin aldagelaren kontrol soziala... Buruzagi bakarra zegoen; Johan. Can Barçaren barruko hainbat kontutan parte har zezakeen.

FC Barcelonako egungo eredia barneratzea nekez lortu genuen, bi urte behar izan genituen eta. Jokoa, kontrola, paseak, kokapena eta posizio bakoitzeko egin-kizunak ezagutzeko denbora izan behar genuen, baina zeuden jokalariekin eta etorri zirenekin lortu genuen.

Eredu hori, gainera, ez zuen ezarri soilik lehen taldean, oinarrizko taldeetan ere jarri zuen.

FC Barcelonako urrezko garai hori bizi zenuen, eta ez edonola, gainera, “Dream Team” ospetsuaren kapitaina izan zinen eta.

Niretzat ikaragarria izan zen eta asko ikasi nuen. Horrez gain, nire aroa bukatu zenean urte batzuk gehiago jarraitu nuen Johan Cruyffekin.

Aldagelako kontrol soziala aipatu duzu. Horrek egin zintuen FC Barcelonako kapitaina?

Hori oso garrantzitsua zen; kapitainak eta entrenatzailerak sintonia ona izatea hainbat kontu sortzeko. Talde batean iritzi ugari dago, eta esaten denaren aurka, kanpoan esaten denak eragina du; jende pilo duzu alboan eta baloratzen duzu esaten dutena.

Hori guztia egonkortu eta kontrolatu beharra zegoen. Zerbaitek aldagelaren giro onari eragin ahal zionean, esku hartzen genuen arazoak ekiditeko taldean.

Baina Romario bezalako jokalariek kontrolpean izatea ez da oso zaila?

Ez pentsa. Jokalariek baiezkoa eman dutenean eta zenbait ararekin adostasuna adierazi dutenean, ondo egiten da. Jokalaria oso ospetsua eta ona izan daiteke, baina beste 24 kideen beharra dauka.

Futbol jokalaria izateari utzi zenionean eginkizun teknikoetara jo zenuen.

Esan bezala, Johan Cruyffek eskatu zidan jarraitzeko lehen taldean laguntzen eta harrobiko zuzendari egin ninduen, 1993tik 1996ra. Hortaz, gazteen taldeen ardurak nituen eta lehen taldean 3. entrenatzailearen rola betetzen nuen, Carles Rexachekin eta Johan Cruyffekin batera. Hori ez ezik, idazkari teknikoa eta jokalarien ikuskaria izan nintzen.

Horren ostean, Errumaniara entrenatzera joateko aukera izan nuen eta bi denboraldi egon nintzen; F.C. Universitatea Craiovan eta Dinamo Bucaresten.

Gero Barçara itzuli nintzen idazkaritza teknikora eta bidaiak prestatzera. Gainera, oinarrizko futbol akademiaren zuzendari bilakatu nintzen 5 urtez eta Laporta joan zenean beste presidente bat sartu zen eta aldaketak egin nahi zituen. Hortaz, kluba utzi eta talde inbertsore batean aholkulari lanak egin nituen, jokalariei buruzko iritzia ematen.

Valencia klubean ere egon zinen, eta garai gorabeheratsuak egokitu zitzaizkizun.

Bai, presidenteak deitu ninduen eta urtebetez izan

nintzen akademiaren zuzendaria eta beste batez kirol zuzendaria lehen taldean. Gero, klubaren zenbait erabakirekin ez nintzen ados egon, eta zuzendari berria sartu zen. Horrek bere kirol zuzendari propioa hautatu zuen. Hortik aurrera Valencia FC utzi nuen klubaren barruan gertatzen ari ziren gatazken ondorioz.

“Nik beti eskatzen diot asko futbolari, gehienbat, berarekin harremanetan egoten uztea”

“FC Barcelonan buruzagi bakarra zegoen; Johan Cruyff”

Aldaketa garrantzitsuak bizi izan dituzu klubetan, baina badago bestelako eraldaketa futboleant. Oraingoari deitzen zaio “futbol modernoa”, zure garaikoarekin alderatuta. Benetakoa da ezberdintasun hori?

Nire ustez, eboluzioa ona da eta gauzak gero eta hobeto egitea ere ona da; sistemari, jokalariei, prestaketa fisikoari edo partidak jokatzeari eragiten badie. Dena aldatzen da, eta futbola ere garatu da hainbat esparrutan, oso modu positiboan.

Garaiak alderatu ditzakegu, jakina. Igarotako batzuk oso onak izan dira, baina ezberdinak, beste modu batean bizi izan dira. Ziurrenik, urte batzuetan aldaketak egongo dira eta teknika, fisikoa, edo lehiatzeko moduak ez dira berak izango.

Ate ireki pilo dago oraindik hobetzeko, edo hazteko, behintzat.

Orain esatari lanak egiten dituzu Bein Sportsen. Nola erabaki zenuen abentura berri horretan sartzeko?

Proposatu zidatenean ez nengoen lanean, eta hori ere bada modua futboleant jarraitzeko, jokarlari berriak ezagutzeko, eta gertatzen dena jasotzeko. Nire lana betetzeko telebista ikusi behar dut, albisteak jarraitu, baloratu, zenbat diru mugitzen den aztertu... horrek interesa sortzen dit, behartzen bainau futbolaren egunerokotasuna jarraitzera.

Bizitza osoa futboleant eman ostean, gehiago eskatzen diozu kirolari?

Nik beti eskatzen diot asko futbolari, gehienbat, berarekin harremanetan egoten uztea. Izan ere, horretan apur bat aditua naiz eta hazten jarraitu nahi dut.



agenda

2018/06/20
2018/06/30



Sua piztuta emango diote ongietorria udari hainbat Aiaraldean

Piztear dago uda Aiaraldean. Larunbat hone-tan -ekainak 23- suak piztuko dituzte eskualde-ko hainbat txokotan urtaro berriari ongietorria egiteko. Laudion San Joan Astobitzako jaiak os-patuko dira asteburuan, izen bereko baseliza-ren inguruan.

Orozkon ere hiru egunez luzatuko dira ospa-kizunak. Umeentzako antzerkia eta pala eta pi-lota partiduak egongo dira ostiralean. Larunba-tean egun osoko egitaraua egongo da, eta Piru-

lo erreko dute iluntzean, ikuskizun pirotekni-koaz lagundurik.

Akakaldon, aldiz, Espartero irudikatzen duen panpina erreko dute, militar horrek herria erre-tzeko agindua eman baitzuen Lehen Karlista-l-dian.

Akelarreak Urduña eta Amurrión

Urduña eta Amurrión gazte asanblada eta Otsemeak taldea arduratuko dira, hurrenez

hurren, udari ongietorria egiteaz. Akelarreak egingo dituzte, aurreko urteetako ildoari jarri-ki. Amurrioko Udalak ere hainbat jarduerata pres-tatu ditu larunbaterako -eskumako zutabeetan kontsultatu daitezke guztiak.

Artziniegan, aldiz, etnografia museoaren atzeko aldean egingo dute sua bihar, dantzarien eta pertsonaia mitologikoen laguntzarekin.

Eskualdeko gainontzeko herrietan ere piztu-ko dituzte suak, hainbat herri eta auzotan.

MUSIKA

06.22
Ostirala
AUDIO
ORBEKO ETXEAREN XVII.
URTEURRENA
21:00 // Kontzertuak:
Issuna + Himura + Lokuria +
GuZural
Orbeo etxea

06.23
Larumbata
20:00 URDUÑA
ARS VIVA ABESBATZAREN
KONTZERTUA
Antzinako Andra Mari
Ikastetxea

06.23
Larumbata
20:30 ARTZINIEGA
LA HISTORIA DE ALCYONE
Ama Agustindarren
komentua

06.23
Larumbata
20:30 AUDIO
YERAY PASCUAL ETA
SELENE RODRI
Tolo taberna

06.24
Igandea
12:00 ZUHATZA
ITZALDE ABESBATZA
Eliza

KIROLA

06.23
Larumbata
9:00 ARTZINIEGA
KAPY BIZIKLETA
KLASIKOEN IBILBIDEA
Artziniega museoa

TAILERRAK

06.23
Larumbata
11:00 ARESPALDITZA
PASTA FRESKOA EGITEKO
TAILERRA HAURRENTZAT
Zentro soziala

BESTEAK

06.21
Ostequema
12:30 URDUÑA
ZILARREZKO PERRETXXIKOA
Kepa Junkerari emango
diote

06.23
Larumbata
AUDIO
SAGARRA AIARALDEAN
ATZO ETA GAUR
11:00 // Hitzaldiak
Juanjo Hidalgo eta Felix
Mugurtzaren eskutik,
Ugarteko dorrean
14:00 // Bazkaria, Aiaraldea
Ekintzen Faktorian
15:30 // Esperientzien
mahala, Aiaraldea Ekintzen
Faktorian
17:15 // Itxiera, Aiaraldea
Ekintzen Faktorian
Ugarteko dorrea eta Aiaraldea
Ekintzen Faktoria

06.23
Larumbata
URDUÑA
ZEZENKETEN AURKAKO
EGUNA
11:00-11:30 // Irekiera eta
ongietorria
11:30-12:00 // Arte
erakusketa
12:00-13:00 // Aerobic klasea
13:00-14:00 // Tortilla
beganoa egiten ikasteko
tailerra
14:00-14:30 // Hitzaldia
14:30-16:00 // Bazkari
beganoa
16:15-17:15 // Nutrizio
beganoari buruzko hitzaldia
17:15-18:00 // “Zure totem
animalia” meditazio gidatua
18:00-18:45 // Hitzaldia
landa-eremuko bizitzaren
inguruan
18:45-19:30 // Rap animalista
kontzertua: Calleja
Alondegia

06.23
Larumbata
AUDIO
ORBEKO ETXEAREN XVII.
URTEURRENA
12:00 // Bizi-poteo
15:00 // Bazkaria -Tiketak
ilergin eta Orbeikon salgai-
17:00 // Txapelketak: Igela,
muturreko herri kirolak,
boulderra
20:00 // Larkhill Collective
Jarralan sua, kontzertu
akustikoekin: Perdido entre
ilusiones + Alperrikako Bizien
Jabe
00:00 // Karaoke nostalgikoa
Orbeo etxea

06.23
Larumbata
18:00 URDUÑA
ARTZAIN TXAKUR
LEHIAKETA
Juan de Garay

06.23
Larumbata
AMURRIO
12:00 // Parkean

Haur mendizaleen zita Orozkon



Orozkon egingo da Euskal Mendizale Federazioaren haurren mendi ibilaldia- ren 28. edizioa. Ekainaren 23an -larunba- ta- izango da zita, 9:30ean Zubiaur pla- zan. Bi ibilbide egongo dira Santa Mari- nara iristeko: luzea -9,5 kilometrokoa- eta laburra -5 kilometrokoa-.

Umeentzako tailer eta jolasak ere egon- go dira goizean zehar, Lehendakari Agi- rre plazan.

Bi astez luzatuko da Orbekoren XVII. urteurrena



17 urte beteko ditu aurten Orbeo Etxeak. Egitarau oparoa prestatu dute Laudioko Gardea auzoko baserri okupatuko ki- deek urteurrena ospatzeko, iragan larunbatean hasizena. Os- tiral honetan -ekainak 22- Issuna, Himura, Lokuria eta GuZu- ral taldeek joko dute. Larunbatean, aldiz, egun osoan zehar egongo da zertaz gozatu.

Datorren astean ere ekintza ugari egingo dituzte. Okupazioa eta kartzeletako borrokak izango dituzte hizpide. Ez da falta- ko ezta Jedi Galaktikoa jaialdia. Orbeo eta Star Warsen uni- bertsoa ere uztartzen dituen film bat estreinatuko dute ber- tan: *El último concierto*.



Zezenketen aurkako eguna antolatu du Urduñako Talde Ani- malistak larunbaterako -ekainak 23-. Hainbat ekintza egingo di- tuzte Alondegian. Arte erakusketak, hitzaldia, tailerrak eta rap kontzertua egongo dira, besteak beste. Bazkaria ere egingo dute. Bertan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurretik izena ema- tea, urdunakoanimalistataldea@gmail.com postara idatzita.

Filma laburrak Sagarraren iragana eta oraina hizpide



“Sagarra Aiaraldean, atzo eta gaur” jar- dunaldiak egingo dituzte larunbat hone- tan -ekainak 22- Laudion. Ugarteko do- rrearen parean emango diote hasiera egunari, 11:00etan.

Hitzaldi bana eskainiko dute bertan Juanjo Hidalgo eta Felix Mugurutzak. Lehenak sagardoak eskualdean utzita- ko arrastoa izango du hizpide. Bigarre- nak, aldiz, sagarrak infernuaren irudite- giarekin duen harremana jorratuko du, eskualdeko historia, hizkuntza eta sines- menak aztertuz.

Aiaraldea Ekintzen Faktorian egin- go dira gainontzeko ekintzak. Bazkaria egingo dute 14:00etan, eta “Esperientzien mahaia” atonduko dute jarraian. Zui- al- deko, Aiaraldeko eta Arratiako hainbat hizlarik hartuko dute parte solasaldi ho- rretan.

Filma laburren Korterraza jaialdiaren IV. edizioa egingo da udan Araban. Aiaral- deko lau herritan egingo dituzte proie- kzioak. Artziniegan izango da lehena, ekai- naren 29an. 11 filma labur ikusteko para- da egongo da Arte kale plazan, 22:00etatik aurrera. Uztailearen 19 eta 20an Okondon egingo dute emanaldia, 20an Amurri- on, 22an Lantenon eta abuztuaren 31an, al- diz, Laudion.

06.21
Ostequna
18:00 ARTZINIEGA
AIARALDEKO BERDINTASUN GUNEA
Bilera
Udaletxe zaharra

06.21
Ostequna
18:30 URDUÑA
“LOS ÚLTIMOS PASTORES DE SIERRA SALVADA”
Dokumentalaren proiektzioa
Alondegia

06.22
Ostirala
17:00 URDUÑA
EUSKARA PLAZARA
Haur eta familientzako ekintzak euskaraz
Foru plaza

06.22
Ostirala
OROZKO
OROZKOKO SAN JOAN JAIAK
17:30 // “Kalean uso, etxean otso” umeentzako antzerkia
18:00 // Pala eta eskupilota partiduak
Zubiaur plaza

06.22
Ostirala
AUDIO
SAN JOAN ASTOBITZAKO JAIAK
Egitarau osoa egunkari honetako jaien gehigarrian ikusgai
San Joan baseliza

06.23
Larumbata
OROZKO
OROZKOKO SAN JOAN JAIAK
9:30 // Euskal Mendizale Federazioaren haurren 28. ibilbidea. Ibilaldiaren ostean umeentzako jolas eta tailerrak
10:00 / Bertako produktuak eta artisautza azoka
11:00 // Pilotak eta pala partiduak
20:00 // Erromeria Oskarbe taldearekin
20:30 // Agate Deuna abesbatzaren kontzertua
21:00 // Kalejira Orozkoko musikari elkartearen eskutik
22:45 // Piruloren erreketak eta ikuskizun pirotekniko- musikala
23:30 // Berbena Oskarbe taldearekin
Herria

06.23
Larumbata
AUDIO
SAN JOAN ASTOBITZAKO JAIAK
Egitarau osoa egunkari honetako jaien gehigarrian ikusgai
San Joan baseliza

06.24
Igandea
10:00 URDUÑA
SAN JOAN AZOKA
Foru plaza

06.24
Igandea
OROZKO
OROZKOKO SAN JOAN JAIAK
11:30 // Meza, San Joan parrokian
12:00 // Herri kirolak, Zubiaur plazan
Herria

INFO +
aiaraldea.eus

06.21
Ostequna
18:00 ARTZINIEGA
AIARALDEKO BERDINTASUN GUNEA
Bilera
Udaletxe zaharra

06.23
Larumbata
AMURRIO
19:30 // Kalaka, zurezko jostailu parkea eta aurpegiak margotzeko tailerra
19:30 // Txokolate-jana
19:30 // Udal musika Eskolako konbo taldearen emanaldia
21:45 // Aiara dantza taldearen emanaldia
22:00 // San Joan sua
22:15 // Musika animazioa Discomovilaraba
Urrutia jauregiko landa

06.23
Larumbata
AUDIO
SAN JOAN ASTOBITZAKO JAIAK
Egitarau osoa egunkari honetako jaien gehigarrian ikusgai
San Joan baseliza

06.23
Larumbata
22:30 URDUÑA
AKELARREA
Terrero

06.23
Larumbata
21:30 ARAKALDO
Askaria eta Esparteroren erreketak
Herriko plazan

Aduana

06.21
Ostequna
18:00 ARTZINIEGA
AIARALDEKO BERDINTASUN GUNEA
Bilera
Udaletxe zaharra

06.21
Ostequna
18:00 ARTZINIEGA
AIARALDEKO BERDINTASUN GUNEA
Bilera
Udaletxe zaharra

06.21
Ostequna
18:00 ARTZINIEGA
AIARALDEKO BERDINTASUN GUNEA
Bilera
Udaletxe zaharra

Historia

Arrankudiaga-Zolloko errepresaliatuen historia azaleratzeko gogor lan egiten ari dira herrian. Argitu duten azken kasua Angel Egañarena izan da, duela 80 urte hil baitzuten erakunde

faxistek Valladoliden. Bide luzea egin du Txomin Egiluz historiazaleak Padura bataloiko kidearen bizitzaren nondik norakoak azaleratzeko.

Angel Egaña, Valladoliden fusilatutako gudari arrankudiagarra



Ezkerrean, Angel Egaña Orozkon ateratako argazki batean. Eskumako goiko irudian, Egaña fusilatu zuten tokia. Eskumako beheko irudian, Angel Egañaren argazkia. Txomin Egiluz



Testua
Altor Aspuru Saez

1938ko ekainaren 2an eman zituen bere azkenengo urratsak Angel Egaña Arrankudiagako herritarrak Valladoliden, hiriko ingurutan fusilatu baitzuten, 6:30ean. Egun berean Emilio Pedrero Mardones anarkista ospetsua ere erail zuten, baina ez dakigu patuak elkartu zituen, ezta batera egoteak azken une horiek arindu zituen. Izan ere, Pedrero Mardones basati torturatu zuten aurretik falangistek. Hori bai, 7. hobi komunean bukatu zuten biek.

80 urte behar izan dituzte Arrankudiaga-Zolloko herritarrek argitzeko bere bizilagunari zer gertatu zitzaion, eta soilik asmatu dute bertako ikerketa ekimen boluntarioari esker -bereziki Edurne Ellakuria, Markel Iturrizar eta Txomin Egiluzen ahalegina

dela medio- eta oroimen historikoaren aldeko Valladolideko taldearen laguntzaz.

Bidea puzzle baten antzekoa izan da, arrankudiagarrari buruzko dokumentazioan erratak baitzeuden, besteak beste.

Padura bataloiko kide

26 urterekin hil zuten Angel Egaña. Otsantzar baserrian bizi izan zen, bere ama alargunarekin eta hiru anaiekin. Antza, zerbitzu militarrean zenbait trebakuntza jaso zuen eta faxistek altxamendua antolatu zutenean, EAJko Padura batailoian izena eman zuen, Landarraga konpainian, hain zuzen. Gudarien artean teniente izendatu zuen eta Primitivo Abad Gorostizaga, Atxetakoa, bere anaia Ignacio Egaña eta Arrankudiagako gizonezko batzuk agindu zituen, adibidez.

Fronteko puntu ugaritan borrokatu zuten Egañak eta bere gudariek, Elgetan, adibidez. Baina

erabakigarria izan zen apirilaren 1ean egindako operazioa Gorbeiko tontorrean; Mola Jeneralaren erasoaldiari aurre egin eta bota mendiko gurutzearen inguruetatik erreketek eta IV. Brigada frankista bota zituztelako. Dirudenez, eta garaiko egunkariek jasotakoaren arabera, Padura Batailoia bi baja izan bazituen ere, faxistek 30 boluntario baino gehiago galdu zituzten, euren artean ofizial bi.

Gauzak horrela, Santoñako akordioaren ostean, Angel Egaña atzeman zuten frankistek Santanderren eta 1937ko irailaren 25ean epaitu zuten 12 urteko espetxe zigorra ezartzeko. Dokumentazio honetan galdu zuten historialariek, neurri batean, herritarraren ibilbidea, bere izena txarto jaso baitzuten norbaitek eta Legaña abizena idatzi.

Azaroaren 4an, ordea, frankistek ondo topatu zuten eta Valladolidera eramane zuten, abendua-

Faxistek altxamendua antolatu zutenean, EAJko Padura batailoian izena eman zuen. Gorbeako batailan parte hartu zuen, besteak beste

ren 31n gerra-kontseiluak erruduntzat jotzeko berriro; Orozkoko Santiago Basoa Beldarrainekin eta beste hiru borrokari ohiekin. Hori bai, azkenean, bera bakarrik fusilatu zuten. Valladolideko militarrek leporatu zioten Gorbeian zalditeria kapitain bat hil izanda, hiriburu-kuartelean adskribatuta zegoena.

Egusentian fusilatua

Epaiaren oinarria izan zen traidore baten deklarazioa. Berez, adierazpenak egin zituena Landarraga Batailoian borrokatu zen, eta gero faxisten lerroetara igaro zen. Antza, Padurako hainbat kidek aldeztatu zuten Bilbo faxisten esku erori zenean. Hori bai, ez zen Angel Egañaren kasua izan. Esan bezala, ekainaren 1ean jakinarazi zioten aiaraldearrari fusilatua izango zela, eta hurrengo egusentia ikusi bezain laster exekutatu zuten.

kultura

Kulturkon: Laudioko I. Kultura Kongresua, bizitza kulturalaren garapena helburu

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

“Kulturkon” aurkeztu berri du Laudioko Kultura Asanbladak, Laudioko kultura ereduaz hausnartu eta proiektuak sendotzeko antolatuko duten Laudioko I. Kultur Kongresua. 2019ko urtarrian abiatuko da hausnarketarako tarte, baina urritik aurrera kongresuaren barruko ekin-tza kultural ugari abiatuko dituzte. Elkarriketaz, lan-mahaiaz, ekintza kulturalaz, ibilaldiz eta hitzaldiz osatutako kongresua izango da.

Antolatzaileen hitzetan, “aukeraz betetako” unean aurkitzen da Laudio, kultur ereduaz hausnartu eta proiektu integrala aurrera ateratzeko. hainbat baliabide eta azpiegitura berreskuratu nahi dituzte, izan paisajistikoki, arkitetnikoki edo ikuspegi gizia-

retik. Parkea dute antolatzaileek horretarako ardatz. Izan ere, Lamuza Parkea Laudioko kulturalaren motor izatea nahi dute.

Horregatik, antolatzaileek herriko kolektibo, eragile sozial, norbanako, merkataria eta abarren inplikazioa bilatuko dute I. kongresu horretan. Ortuzainaren Etxea eta Kasinoa izango dira hausnarketaren epizentroa.

Kultur sorkuntzarako plaza

Hausnarketaz harago, kulturalaren plaza ere izango da “Kulturkon”. Urrian ekingo diote eskaintza kulturalari. Eskaintza bi programa nagusitan banatuko dute: “Bienbitartean” eta “Gonbidatuak”. Lehenengo programa herriko taldeen proiektu berri-tzaileen erakusleho izango da eta bigarrenak kanpoko sortzaileak ekarriko ditu Laudiora beraien proiektuak partekatzerako.

Deus ez taldea garaile Amurriocken lehen edizioan



Deus ez taldeak eskuratu zuen lehen saria. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Iragan ostiralean egin zuten Amurriock musika lehiaketaren finala. Aurreneko antolatu dute musika txapelketa, eta 70 talde baino gehiagok eman dute izena. Maiatzetik ekainera arte jokatu dituzte finalerdiak; ostiraletan, Burubion. Ostiralean, berri, final nagusia izan zen. Epailaiek zuzeneko emanaldia baloratu zu-

ten erabakia hartzeko. Talderik onena Deus ez izan zela iritzi zuten rock-metal estiloan, eta pop zein bestelakoetan Meridian. Bigarren saria, aldiz, Oslos Ovnies eta Tristtan Mourguy eta Horeba taldeek eskuratu zuten.

Aiaraldeko talderik onenak ere jaso zuen saria: Gwa Yak, oraingoan. Hala, Burubion zuzeneko grabaketa bat egingo dute, Aiaraldea Ekintzen Faktoria eta he-dabidearekin elkarlanean.

60.000 euroko indemnizazioa Aiaraturreko langile kaleratuari

Ekainaren 21etik irailaren 21era aurkeztu ahaliko dira Udako argazki lehiaketara lanak. Aurten balorazio modua aldatu dute, webgune-ko erabiltzaileek erabakiko dute irudi onena. Horretarako irailaren 21etik 30era bozkatzeko aukera egongo da, atarian bertan.

Instagram, Facebook, Twitter eta Whatsapp bidez bidali ahaliko dira argazkiak. Erredakzio-ko telefonoa ere jarriko da eskura, 688848152. Mezu pribatu bidez partaidearen izen-abizena, herria eta telefonoa ere igorri behar-ko da harremanetarako; baita argazkiaren izenburua edo deskribapena ere. Eskualdeko pertsonak soilik ahaliko dute parte hartu. Saria “Las casas de las cascadas” ekoturismo gunean 2 lagunentzat gau baten egonaldia izango da, inguru paregabea.

Arbizuko kanpina, ekologia eta meditazioa uztartzen dituen gunea

BABESTUTAKO EDUKIA

Nafarroako Sakanan kokatua dago Arbizuko kanpina. Ez da edonolakoa, ekologismoan sustraitutako proiektua baita. Yoga saioak eskaintzen hasi dira bertan, Amari Yoga Magikoaren eskutik.

Sakanan kokatuta dago Arbizuko kanpin ekologikoa, gailurrean ermita duen Beriain mendiaren magalean. Andia, Urbasa eta Aralar parkeen naturalak gertu dituzte, asko dira asteburua edo egun batzuk pasatzera Nafarroara hurbiltzen diren bisitariak. Izan ere, kanpin-denda, furgoneta, karabana edo autokarabanentzako tokia dute; baita bungalowen alokairu eskaintza ere.

Meditaziorako gunea aproposa

Meditaziorako gunea ezinhobe da Arbizuko kanpina. Horretarako espresuki prestatutako azpiegitura ikusgarriak ditu. Aretoki bioklimatiko bat du, 12 enbor osoz eginiko sabaia batekin. Teilatuan irekiune bat du gelak, eguzkia eta izarrak barrutik ikustea ahalbidetzen duena. Yoga saioak eskaintzen dira bertan, Amari Yoga Magikoa eskolaren eskutik.

Horrez gain, igerilekuak bereizten du kanpina. Baina, batez ere, aintzira naturalak egiten du berezi, txikia izan arren kanoetan ibiltzeko aukera baitago. Kirol gunea, naturaren interpretaziorako eremua, bidegorria, jolaslekua eta bestelako aukerak

ere baditu. Ildo beretik, partzeletan ortu propioa jartzeko parada eskaintzen du kanpinak. Halaber, baratze kolektiboa dute espazio komun batean.

Zerbitzuei dagokienez, bertako elikagaiak eta produktu ekologikoak osatzen dute supermerkatua. Tabernan, aldiz, menuak, plater konbinatuak eta ogitartekoak zerbitzatzen dituzte. Tokiak garagardotegi itxura badu ere, deigarria da dekoraziorako baliatutako materiala, birziklatutako gaiak baitira guztiak.

“Eko” filosofiari helduz eraiki dute kanpina. Horren adibide da eraikin oro egurrez sortua izatea, edo paretak lasto balekin ixtea, erabilerrazak baitira, eta isolatzeko oso onak. Arduradunen esanetan material naturala, gertukoa eta ekonomikoa baliatu dute proiektua egikaritzeko. Era horretan lortu dute espazioen berotasuna eta goxotasuna, baita kontsumo energetiko baxua ere. Bungalowak, adibidez, bioklimatikoak dira, isolatzaile naturalak, hots, birziklatutako materialarekin eginak: ardiñ artilea, praka bakero birziklatuen kotoia... Eko-herrietatik atera zuten ideia.



Paraje Utzu, 5. kilometroa 31839 Arbizu, Nafarroa T: 848 47 09 22 info@campingarbizu.com

Kirola

Uda sasoiarekin hastearekin batera amaitzear dago kirol denboraldia. Atsedean hartu eta hurrengo ikasturteari gogoz heldu aurretik urtean zehar egindako entrenamendu gogorren fruituak jasotzeko garaia da orain. Askotarikoak izan dira Aiaraldeko kirol talde eta klub enaitzak. Askok motxila bete garaipen ekingo diote udako oporraldiari.

Uzta jasotzeko garaia da Aiaraldeko kirol taldeentzat

AMURRIO

AMURRIO CLUB

III. MAILAKO TALDEA (gizonezkoak): 16. postua
Arabako preferentea (gizonezkoak): 17. postua
Ohorezko jubenilak (gizonezkoak): 1. postua

KASKAGORRI FUTBOL TALDEA

JUBENILAK (gizonezkoak): 8. postua
KADETEAK A (gizonezkoak): 3. postua
KADETEAK B (gizonezkoak): 9. postua

IZAROB E ADC

ZALEAK-PREFERENTE, ARETO FUTBOLA (gizonezkoak): 10. postua

LAUDIO

CD LAUDIO

III. MAILAKO TALDEA (gizonezkoak): 14. postua
JUBENILAK (gizonezkoak): 7. postua
KADETEAK A (gizonezkoak): 1. postua
KADETEAK B (gizonezkoak): 5. postua

ALTZARRATE K.E.

ALTZARRATE A, SENIOR (emakumezkoak): 3. postua -liga-
ALTZARRATE A, SENIOR (emakumezkoak): 3. postua -kopa-
ALTZARRATE B, KADETE (emakumezkoak): 6. postua -liga-
ALTZARRATE B, KADETE (emakumezkoak): 6. postua -kopa-
ALTZARRATE C, HAURRAK (emakumezkoak): 5. postua -liga-
ALTZARRATE C, HAURRAK (emakumezkoak): 4. postua -kopa-
ALTZARRATE D, KIMUAK (emakumezkoak): 2. postua -liga-
ALTZARRATE D, KIMUAK (emakumezkoak): 2. postua -kopa-
ALTZARRATE E, BENJAMINAK (emakumezkoak): 6. postua -kopa-

ALTZARRATE E, BENJAMINAK (emakumezkoak): 6. postua -liga-

LAUDIOKO HARROBIA CDFS

ZALEAK-PREFERENTE, ARETO FUTBOLA (gizonezkoak): 12. postua

UXOA FSCD

ZALEAK-ERREGIONAL I. MAILA, ARETO FUTBOLA (gizonezkoak): 12. postua

OROZKO

ATXULAU K.E.

ATXULAU ERREGIONAL MAILA (gizonezkoak): 6. postua
ATXULAU A, JUBENILAK (gizonezkoak): 2. postua
ATXULAU B, JUBENILAK (gizonezkoak): 6. postua
KADETEAK (gizonezkoak): 4. postua
ATXULAU 04, HAURRAK: 7. postua
ATXULAU 05, HAURRAK: 2. postua
ATXULAU 06 A, KIMUAK: 10. postua
ATXULAU 06 B, KIMUAK: 7. postua
ATXULAU 08, BENJAMINAK: 2. postua
ATXULAU 09, BENJAMINAK: 4. postua

URDUÑA

CD ORDUÑA

III. MAILAKO TALDEA (gizonezkoak): 3. postua
SENIOR TALDEA (emakumezkoak): 6. postua (liga)
SENIOR TALDEA (emakumezkoak): 3. postua (kopa)
JUBENILAK (gizonezkoak): 7. postua
KADETEAK: 5. postua
HAURRAK: 3. postua
KIMUAK A: 6. postua
KIMUAK B: 6. postua
BENJAMINAK A: 1. postua
BENJAMINAK B: 5. postua

ARRANKUDIAGA

CD INDARRA

III. MAILAKO TALDEA (gizonezkoak): 10. postua
JUBENILAK II. MAILA (emakumezkoak): 16. postua

FUTBOLA

CD Orduñaren igoerak jarri dio amaiera gozoa orokorrean gazia izan den denboraldiari



Altzarrateko neskek Euskal Ligara igotzeko play off-etara heltzea lortu zuten. Juanfer Oleaga

Testua Aimar Gutierrez Bidarte

Denboraldi gorabeheratsua izan da aurtengoa eskualdeko futbolarentzat. CD Laudio-ko zuzendaritzaren aldaketak protagonismo berezia hartu du azken asteetan. Aurreko zuzendaritzak utzitako zorrei aurre egin eta taldea zuzentzeko ardura Javi Zaballak hartu du, klubeko bazkideen gehiengoak bere alde bozkatu ostean. Klubaren etorkizunaren gaineko ezjakintasunarekin amaitu du Zaballaren izendatzeak. Amurrio Clubak, bere aldetik, gertu ikusi zuen kategoria galtzea, baina azkenean mantendu du maila. Bertako entrenatzaile Javier Peredak, ordea, agur esan dio denboraldi honekin talde amurriarraren gidaritzari eta hemendik aurrera Iban Urbano izango da entrenatzailea. Albiste ona CD Orduñak ekarri du. Denboraldia espero bezain ondo hasi ez bazuen ere, li-

lazko egoera berdinen aurrean aurkitzen zen CD Orduña: play off-etako azkenengo partidaren irabaziz gero erregional 2. mailako taldea bihurtuko zen. Aurten lortu egin du

gan 3. postua eskuratu eta mailaz igotzeko play off-etan sartzea lortu du. Bertan lortutako garaipenek erregional 2. mailako talde bihurtu dute klub urduñarra. Emakumezkoen taldea belautaldian aldaketara egokitu da denboraldi honetan, entrenamendu gogorrek fruituak eman dituzte eta 6. postua erdietsi dute ligan eta 3. postua kopan. Haurren taldeak ere ahalegin handia egin du azken denboraldi honetan, 3. postua eskuratu du. Altzarrate play-off-etan Altzarrate futbol taldeko neskek ere denboraldi emankorra izan dute, ligan eta kopan 3. postua lortu zuten eta Euskal Ligara igotzeko fasean ere lehiatu egin ziren. Senior taldeak ez ezik, kategoria guztietako taldeek lortu dituzte emaitza onak. Bereziki azpimarragarriak dira kimuek ligan zein kopan eskuratutako bigarren postuak.

LAUDIO
SUGARRAK

ONAINDIA SUGARRAK, ERREGIONAL II. MAILA (gizonezkoak): 8. postua
DRUMGORRI SUGARRAK ERREGIONAL III. MAILA (gizonezkoak): 2. postua
EGARLUR SUGARRAK SENIOR III. MAILA (gizonezkoak): 4. postua
LOR-KUN SUGARRAK SENIOR II. MAILA (emakumezkoak): 11. postua
CAPUCCI KATUA SUGARRAK JUBENILAK II. MAILA (gizonezkoak): 8. postua
II. MAILA KADETEAK (emakumezkoak): 1. postua
CAFÉ ARABA SUGARRAK HAURRAK (emakumezkoak): 2. postua
HAURRAK (gizonezkoak): 4. postua
KIMUAK (emakumezkoak): 7. postua
KIMUAK (gizonezkoak): 4. postua

URDUÑA
BEDARBIDE ST

I. MAILA SENIOR TALDEA (gizonezkoak): 14. postua

I. MAILA SENIOR TALDEA (gizonezkoak): 14. postua
HAURRAK (emakumezkoak): 2. postua
JUNIOR LIGA (gizonezkoak): 2. postua
BENJAMINAK (mistoa): 5. postua

AMURRIO
ZARAOBE ST

ERREGIONAL II. MAILA SENIOR TALDEA (emakumezkoak): 1. postua
ERREGIONAL III. MAILA SENIOR TALDEA (gizonezkoak): 10. postua
KADETEAK (gizonezkoak): . postua
KADETEAK I. MAILA (emakumezkoak): 2. postua
KADETEAK I. MAILA (gizonezkoak): 2. postua
HAURRAK CB ZARAOBE ST (emakumezkoak): 5. postua (errendimendu fasea)
HAURRAK CB ZARAOBE ST TALDE URDINA (emakumezkoak): 2. postua
HAURRAK CB ZARAOBE ST TALDE HORIA (emakumezkoak): 6. postua -lehenengo fasean-
KIMUAK I. MAILA (emakumezkoak): 3. postua

SASKIBALOIA

Azken segundoetan ebatzi da denboraldi zirraragarria

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Azken partidetara arte izan da zirraragarria saskibaloia denboraldia Aiaraldean. Urduñako Bedarbide Saskibaloia Taldeko neskak Bizkaiko Txapelketan txapeldunorde geratu ziren. Noiz eta Otxomaietan jokatu zen ligako azken partidaren ebatzi zen emaitza. Bedarbideko neskek, partida irabazteaz gain, Mungia-ko saskibaloia taldeak galtzea zuten beharrezko txapeldun izateko. Mungia ere irabazi egin zuen orde. Neska urduñarren emaitza bikainek klub bereko senior taldearen emaitzekin egiten dute talka, hauek azken postuan geratu baitziren ligan eta, ondorioz, mailaz jaitsi ziren.

Drumgorri Sugarrak talde laudioarrak ere azken unerarte izan



Bedarbideko neskek bigarren postua eskuratu zuten ligan. Bderabide ST

zuen zabalik erregional 3. mailako txapeldun izateko aukera. Aurreko fasean lehenengo postua eskuratu ostean, Tikoti talde gasteiztarren aurka neurtu zen La Granja kiroldegian txapelketako lehenengo postua ebatziko zuen partidaren. Mar-

kagailuan goitik hasi zuten norgehiagoka, baina azkenean gasteiztarrentzat izan zen txapela, partida luze eta neketsu baten ostean. Bigarren postu horri esker, orde, Drumgorri Sugarrak taldeak 2. mailara igotzea lortu zuen.

LAUDIO
GANBEGI

GIZONEZKOEN 1. MAILA
Belar Hockeya
Ipar Liga: 8. sailkatua

ARETO HOCKEYA
ARABAKO TXAPELKETA:
1. sailkatua

ARETO HOCKEYA
EUSKADIKO TXAPELKETA:
1. sailkatua "C" multzoan

GIZONEZKOEN HAUR MAILA
BELAR HOCKEYA
EUSKADIKO TXAPELKETA:
4. sailkatua "A" multzoan

HOCKEY LAUDIO

GIZONEZKOEN 1. MAILA
ARETO HOCKEYA
ARABAKO TXAPELKETA:
2. sailkatua

GIZONEZKO HAU MAILA
ARETO HOCKEYA
EUSKADIKO TXAPELKETA:
4. sailkatua "C" Multzoan

RAPID APILL

GIZONEZKOEN GAZTE MAILA
ARETO HOCKEYA
EUSKADIKO TXAPELKETA:
3. sailkatua

Eskolar mailan badaude beste talde batzuk, baina sailkapenik gabe:
-Latorro H.t. Kume maila
-Laudio H.t. Benjamin maila
-Latorro H.t. Aurrebenjamin maila

Beraiek guztiak parte hartu dute Eskolarteko 3X3 Txapelketan eta San Prudentzioko Txapelketan

HOCKEYA

Garaipen ugari erdietsi dituzte aiaraldearrek



Hainbat garaipen erdietsi dituzte jokalariek. Arabako Hockey Elkarte

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Uzta oparoa jaso dute Aiaraldeko hockey taldeek aurtengodenboraldian. Arabako txapelketan lehen postua erdietsi du Gangebik. Rapid Apill taldea ere bizi aritu da, 3. postua eskuratu baitu Euskadiko Areto Hockey Txapelketan, gizonezkoen gazte mailan.

Baina, garaipenak garaipen, gauza baliotsuago bat dute

Gabegiko kideek: kirolaren inguruan osatu dute komunitatea. Horren isla izaten da ekaina hasieran Gardeako zelaian egiten duten hockey eguna.

Aurten adin ezberdinetako ehunka jokalaria eta jokalaria ohi bertaratu dira zitara. Partiduak jokatzeaz gain, herri bazkaria eta bestelako ekintza batzuk ere egin dituzte egunean zehar, kideen arteko harremanak sendotzeari begira.

ANTOLATZAILEA

areta2. TRAIL LASTERKETA

UZTAILAK 28
18:00

+750- KM MALDA POSITIBOA

BI HORNIKETA PUNTU EGONGO DIRA:
LEHENENGOA: 5,5KM-AN (LIKIDOA + SOLIDOA)
BIGARRENA: HELMUGAN (LIKIDOA + SOLIDOA)

12 KM-KO MENDI IBILBIDEA

IRTEERA ETA HELMUGA ARETAKO ZUBIAN

PLAZA MUGATUAK

INSKRIPZIOA
WWW.SPORTMANIACS.COM

2018/05/05etik 2018/07/01era: 8€
2018/07/02tik 2018/07/23ra: 10€

BABESLEA
AIARALDEA GAUR

Kirola

IGERIKETA

Bukatu gabeko denborladi emankorra izan da igeriketakoa

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Emaizta ugari daude oraindik ebazteke, uztailleko azken astera arte luzatuko baita denboraldia. Hala ere, Igeriketa Audio taldeak

denboraldiaren oso balorazio positiboa egin du, “nabaritzen da taldeko gaztetxoek hila bete haue-tan izan duten garapena eta hobe-kuntza”.
100 igerilarik baino gehiagok osatzen dute Audioko igerike-

ta taldea eta entrenatzaileek kide guztien arteko elkarlana jarri dute emaitza onen gaketzat
Arabako, Euskal Herriko eta Es-painiako txapelketak dira hurren-go asteetan jokatu behar direnak. Audiok ordezkaritza handi ba-

tek hartuko du parte zita horie-tan, Deiane Duarte, Maier Sala-zar eta Borja Samaniegok osatua. Hurrengo frogetan gerta daitekeenaren esperoan, 50 libre, 100 libre, 400 libre eta 800 libre kategoria-tan lehiatuko da hirukotea.

LAUDIO IGERIKETA LAUDIO

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETARAKO SAILKATUAK:
Igor Lombrana, Beñat Gutiérrez, Iraia Andino, María Resa, Maier Salazar, Deiane Duarte, Ixone Mendiguren, Joane Ortiz de Zarate, Maider Vicario, María Figueroa Lucía Redondo eta Borja Samaniego

AMURRIO

ARESKETA GIMNASIA KLUBA

ARABAKO TXAPELKETA
Taldea (benjaminak): 1. postua
Haizea Ugarte (benjamina):
2. postua
Alba Bra + Izaro Presilla (kimuak): 2. postua
Aroa Elejalde (kadetea):
3. postua
Ane Barrenengoa (senior):
1. postua
Taldea (jubenilak): 2. postua
Taldea (seniorrak):
1. postua

GASTEIZ HIRIA TXAPELKETA
Aroa Elejalde (kadetea): 1. postua
Ane Barrenengoa (senior):
1. postua
Nitai Romay (jubenila): 1. postua

EUSKADIKO TXAPELKETA
Nerea Monasterio (kadetea):
1. postua
Paula Lopez (kadetea): 3. postua

GIMNASIA ARTISTIKOA

Gimnasia artistikoa pauso bat aurrera

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiaraldeko gimnasia talde ba-karra da Amurrioko Aresketa. Aur-ten hainbat garaipen lortu dituz-te. Denboraldiaren balorazio posi-tiboa egin du klub amurriarrak.
Aroa Elejaldek eta Nitai Romayk urrezko dominak eskuratu zituz-ten martxoko Gasteiz Hiria Txapelketan, uztaila eta pisuak erabi-lita, hurrenez hurren.
Euskadiko Txapelketan Nerea Monasteriok eta Paula Lopezek lehenengo eta hirugarren postuak eskuratu zituzten.
Arabako Txapelketan ere era-

kustaldi oso ona egin zuten amu-rrioarrek eta taldekako frogetan gailentzea lortu zuten hainbat ka-tegoriatan.
Gaur egun 80 kidek osatzen dute taldea eta 5 eta 28 urte bitar-teko kirolariek parte hartzen dute bertan. Martxoan Aresketa Txapelketaren 6. edizioa antolatu zuen klubak eta Euskal Herri osoko 100 kirolarik parte hartu zuten. Gim-nasia artistiko emanaldiak ere es-kaintzen dituzte.
Irati Diaz txapeldun
Aresketa kluba eskualdeko gim-nasia talde bakarra den arren, Kimu kategoriako Euskadiko Txa-



80 gimnastek baino gehiagok osatzen dute Aresketa Kluba. **Aresketa Kluba**

pelduna ere aiaraldearra da, Irati Diaz arakaldoarra. Leioako Sako-neta Klubarekin aritu da aurtan Diaz eta maiatzaren 26an bilaka-tu zen Euskadiko Txapeldun, fina-lean Bizkaiko bost gimnasta onen aurka lehiatu ostean. Eskola arte-

ko jokoetan lortu zuen nagusitzea. Diaz oso pozik azaldu da azken ur-tean egindako hobekuntza naba-riarekin. Datorren urtean Espainia mailako txapelketetan parte har-tzeko aukera izango du, Sakoneta klubean federatuta.

AIARA

AIARA TXIRRINDULA ELKARTEA

ARBULOLO ZIKLOKROSA, ARABAKO TXAPEPLKETA
Mikel Beraza (kadetea): 1. postua
Legazpiko ziklokrosa, Espainiako txapelketa
Mikel Beraza (kadetea): 4. postua
ARBULOLO ZIKLOKROSA, ARABAKO TXAPEPLKETA
Iosu Isasi (master 40): 1. postua
LEGAZPIKO ZIKLOKROSA, ESPAINIAKO TXAPELKETA
Iosu Isasi (master 40): 4. postua
OÑATIKOA ZIKLOKROSA
Ander Lopez (kadetea): 1. postua
LEGAZPIKO ZIKLOKROSA, ESPAINIAKO TXAPELKETA
Iosu Isasi (master 40): 4. postua
LAUDIOKO ZIKLOKROSA, ESPAINIAKO KOPA
Iosu Isasi (master 40): 3. postua
KARRANTZAKO ZIKLOKROSA, ESPAINIAKO KOPA
Iosu Isasi (master 40): 3. postua
ELORRIKO ZIKLOKROSA, ESPAINIAKO KOPA
Iosu Isasi (master 40): 3. postua

Urretxu, Euskadiko txapelketa, mendiko bizikleta
Mikel Beraza (kadetea):
2. postua
AIARAKO BIRA
Mikel Beraza (kadetea): 3. postua
ARABAKO TXAPEPLKETA
Asier Castilla (kadetea):
1. postua
AMURRIOKO LASTERKETA, AIARAKO BIRA
Asier Castilla (Kadetea):
3. postua

AMURRIO

KOBA CYCLING CX TEAM

OÑATIKOA ZIKLOKROSA
David Hidalgo (elitea):
4. postua
HASELT, MUNDUKO TXAPELKETA
David Hidalgo (elitea):
38. postua
Inaki Guaresti (gazteak):
34. postua
ARBULOLO ZIKLOKROSA, ARABAKO TXAPELKETA
Josu Albizua (23 urte azpikoa):
1. postua

TXIRRINDULARITZA

Gazte belaunaldi indartsua dator pedalen gainean

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Indartsu eta osasuntsu dago txi-rrindularitza Aiaraldean. Horren adibide argia dira kirolari gazteen emaitza ezin hobeak. Luisa Ibarro-la saratxoarra izan da denboraldi-ko protagonistetako bat. Erakustal-di bikaina egin baitu ziklokrosean. Froga ugaritan igo da podiumeko lehen postura eta horrek Euskadi-ko Txapeldun izendatu du. Ibarro-laren denboraldi emankorra ez da hor bukatu, baina. Handik gutxi-ra Espainiako Txapelketa irabazi zuen eta horrek Munduko Kopan parte hartzeko ateak ireki dizkio.
Aiara Txirrindula Elkarteko Mi-kel Berazak ere emaitza oso onak erdietsi zituen ziklokrosean. Lau-garren geratu zen Legazpin ospa-



Luisa Ibarrola izan da zalantzarik gabe urteko protagonista ziklokrosean. **Ona onari**

tu zen Espainiako Txapelketako lasterketan. Mendiko bizikletan ere maila altua erakutsi du Bera-zak, Urretxun ospatutako Euskadi-ko txapelketan 2. postua lortzeaz gain, beste hainbatetan igo baita podiumeko lehenengo eta biga-

rren postuetara modalitate ho-rretan.
Errepidean Mikel Berazaren tal-dekide den Asier Castilla izan da jaun eta jabe kadete mailan eta Arabako Txapeldun bihurtu zen Amurrian.

PILOTA

Herriarteko Txapelketak itxi du eskualdeko pilotarien ikasturtea

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurrio eta Laudio arteko lehia biziak markatu ditu aiaraldea-rrantzako oso ona izan den denboraldi honen azken egunak. Izan ere, Amurrio izan da Arabako Herriarteko Txapelketan buru, finalean Laudio garaitu ostean.

Argantzunen ospatu zen Arabako Herriarteko Txapelketaren finala iragan ekainaren 17an eta eskualdeko bi herriak jarri zituen norgehiagokan. Finalean jokatu ziren hiru partidetatik azkenak, senior kategoriakoak, ebatzi zuen txapelketa Amurriokoen alde.

Azken partida hori ezin zitekeen berdinduago egon. Gerrero eta Arregiamurriok 22-20 gai-

lendu ziren Pagaza anaien aurka oso partida gogorrean.

Hirugarren partidara berdinduta heldu ziren bi herriak. Kadete mailan amurriok jarri ziren aurretik. Gazte mailako partida, aldiz, Laudioko taldeak irabazi zuen, 22-3 irabazi ostean.

Bigarren postuarekin pozik azaldu dira laudioarrak, Laudio Arabako Herriarteko Txapelketako final batean ordezkaturik da goen lehenengo aldian baitzen Argantzunekoa.

Orozkoko Olgetan taldea ere heldu da Bizkaiko Herriarteko Txapelketako finalera, txapela eskuratu ezin izan zuten arren. Olgetaneko kideek oso positiboki baloratzen dute finalera heldu izana, "horrelako txapelketetan

talde on bat izatea da ezinbestekoa eta guk badaukagula aise erakutsi dugu".

Eskuz bakarrik ez, palan ere denboraldi ona egindute orozkoarrek. Aurten 80 neska egon dira Orozkoko frontoian entrenatzen, zifra esanguratsua herri txiki baterako. Olgetaneko palariak kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki ere maila altua erakutsi dute. Eskolar-tekoan Bizkaiko txapeldun gailendu dira eta beste bi final-aurretikotara heldu dira. Oihane Iturbe da Bizkaiko txapela Orozkora ekarri zuen neska gazteetako bat. Getxon jokatu zen Bizkaiko V. Kinien lortu zuen. Palar aritzen den herriko lehenengo emakumezko belaunaldia da Iturberena eta etorkizuna emankorra dirudi.



Olgetan taldeko kide bat. Mikel Isusi

LAUDIO

HERRIAREN PILOTA ELKARTEA

ARABAKO ESKUZ BANAKA GAZTEAK: 1. postua
ARABAKO ESKUZ BANAKA GAZTETXOAK: 2. postua
UDABERRI TXAPELKETA 4 ETA ERDIAN GAZTETXOAK: 1. postua
ARABAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA: 2. postua
TRINKETE TXAPELKETA ESKUZ BANAKA GAZTETXOAK: 1. postua
TRINKET TXAPELKETA ESKUZ BANAKA GAZTEAK: 1. postua
ARETAKO GAZTE MAILA TXAPELKETA ESKUZ BANAKA: 1. postua

AMURRIO

AMURRIO PELOTAZALE

TRINKETE TXAPELKETA ESKUZ BANAKA SENIORRAK: 4. postua
UDABERRI TXAPELKETA 4 ETA ERDIAN KADETEAK: 5. postua
UDABERRI TXAPELKETA 4 ETA ERDIAN GAZTE MAILA: 5. postua
ARABAKO ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETA, GAZTEAK: 1. postua
ARABAKO ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETA, GAZTETXOAK: 8. postua
ARABAKO ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETA, SENIORRAK I. MAILA: 3. postua
ARABAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA: 1. postua

Europako Pitch & Putt jokalaria onenak lehiatuko dira Urduñan

Kirol zita garrantzitsua egongo da ostiraletik -ekainak 22-igandera Urduñako pitch & putt zelaian. Europako Taldeko VIII. Pitch & Putt Txapelketa jokatu da bertan. Lau urtean behin egiten da norgehiagoka hori. Aurrekoa Andorran izan zen, eta Urduñari egokitu zaio orain goi-mailako kirol zita hori hartzea.

Zortzi herrialdeko taldeak batuko dira hirian: Euskal Herrikoak, Kataluniakoak, Galizia-koak, Suitzakoak, Frantziakoak,

Norbegiakoak, Irlandakoak eta Britainia Handikoak. "Taldea ba-koitzak sei jokalaria izango ditu", azaldu dute Urduñako Pitch & Putt Klubeko kideek. Ostira-lean eta larunbatean goizez zein arratsaldean egingo dituzte partiduak, eta igande goizean amaituko da txapelketa.

Antolatzaileek nabarmendu dute sarrera doakoa izango dela. "Ahalik eta jende gehien bertaratzea gustatuko litzaiguke, kirol hau ezagutzera emateko", adierazi dute.



Urduñako zelaian egingo da txapelketa. Javier Ruiz Lili

Lesioek gogor zigortu dute Laudio Eskubaloi Taldea



Laudio BC 11. postuan geratu da Bizkaiko eskubaloi ligan zazpi puntu eskuratuta. Gogotsu eta indar askorekin heldu zioten laudioarrek txapelketari. Baina lesioen ondorioz jokalaria askok ezin izan zuten denboraldia bukatu. Baja nabarmeneko taldean eragin handia izan zuten eta ligako azken aurreko postuan bukatzea eragin.

Beteranoen taldea hobeto aritu zen eta Bizkaiko kopan 2. postua lortu zuten Leioa Eskubaloi Taldearen aurka finalean galdu ostean. Neska Kadeteek ere emaitza onak erdietsi zituzten. Galdakaoren aurkako garaipenarekin esan zioten agur denboraldiari.

URDUÑA PITCH & PUTT

EUROPAKO TALDEKAKO VIII. Pitch & Putt TXAPELKETA

Ekainak 22-24

Zatoz kirol hau ezagutzera eta Europako jokalaria onenekin gozatzerara!

Sarrera librea!

urdunapitchandputt@gmail.com 640154356


Herriko plaza



Ane

Zorioonaak Gorordina!! Ondo
pasa 15ak!!! Argantzunen
ospatuko duguu!! Muxuu handi
bat nesken partez!

Areta's crew



Koro

Zorionak koro!! Altxatu
edalontziak ta hartu opariak.
Muxu handi bat!

Lagunak



Unax

Zorionak Unax, gure etxeko pottoki nagusia 6 urte betetzerakoan!

**Ama, aita, lbai,
aitite eta amatxi**



Santi


Zorionak! Urteak joan eta indarra
ez dizu huts egiten! Segi beti
bezala gerra ematen! Muxu bat!

Familia

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali
argazkia agurrak@aiaraldea.eus
eta Aiaraldea.eus atarian
plazaratuko dugu.
Irailean argitaratuko da
hamabostekariaren hurrengo
zenbakia.

Denborapasak



❖ Letrazale urduñarra

ERRAZA

				8			7	6
1		7	6			4		8
3	6		2					9
4			8	2		6	9	
2	8		4	3	9	5		7
			1	6	5		8	
5					6	8	3	2
	7		3	4	2	9		
	3	2	9	5	8			1

			9	2			3	
			6	7			8	2
	4		8		3	5		
			7		2	6	8	
8				6			4	
	6	7	4	8		3		5
9					8	4		
	3	5						
	7			4				

ZAILA

	7			5			
		7					
2	8						6
		9		7	2	5	8
			5				4
		3		6		7	
6		4				8	2
	4		2			3	5

						2	4
		3			7		
4	1			7			6
					3		
		5		9		8	
			8		5		
2				4			9
		7				4	
9	6						1

DENBORAPASEN SOLUZIOAK



Lan-eskaintzak

- **LANALDI ERDIKO KOMERTZIAL LANETARAKO DEIALDIA**
Aiaraldea Ekintzen Faktoria
- **ITZULTZAILEA ETA INTERPRETAZIOA LANGILEA**
Aiaraldea Ekintzen Faktoria
- **AIARALDEA KOOPERATIBAKO DISEINU ETA GRAFIKA LAN POLTSA**
- **PIZZA BANATZAILEA** Audio
- **KOMERTZIALA** Amurrio
- **EKOIZPEN LANGILEA: 18 LANPOSTU** Audio
- **NAGUSIEN ZAINTZAILEA** Artziniega
- **ESTEKIAK EGITEKO LANGILEA** Artziniega
- **LEKU PUBLIKOEN MANTENURAKO LANGILEA** Amurrio
- **MANTENU INDUSTRIALERAKO LANGILEA, ELEKTROMEKANIKARIA**
Amurrio

LAN-ESKAINTZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Zozketa

ARETA TRAIL



DORTSAL
BATEN
ZOZKETA

Ekainaren 17an izango da Josito Memoriala krosa.
Zozketa data: ekainaren 11.
Parte hartu **www.aiaraldea.eus** web web atarian

Emaizak


A cartoon illustration of a young girl with a sad expression. She has brown hair in pigtails with green bows, large white eyes, and a small mosquito on her nose. She is wearing a green and yellow striped shirt, pink shorts, and blue sneakers. A red bump is visible on her left arm, and a green wavy line suggests a mosquito nearby.

Two cartoon illustrations of a girl hanging upside down. The left illustration is on a green background and includes a 10x10 word search grid below the girl. The right illustration is on a yellow background and includes a 10x10 word search grid below the girl. Both grids contain various words related to the theme of the page.



Ingainariak (HAN eta HEMEN)

di zati hauek irudi nagusitik hartuak iruditzen al zaizkizu?
e, zortzitik hiru besterik ez baitira onak. Zeintzuk?



Parreak bai!

Galtzerdi mordo honen artetik batek parerik ez du, eta beste galtzerdi bat, berriz, hirukoiztuta dago. Zeintzuk dira?



Hirukoiztuta dagoen galtzerdia

Parerik ez duen galtzerdia

Kontra

Mundutik Aiaraldera

Ground Report



Hafiz Hafitxu


JAIOTERRIA
PAKISTAN (1975)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
LANA



PAKISTAN



DESKRIBAPENA

Asia hegoaldeko zibilizazio garrantzitsu batzuen epizentroa izan zen Pakistan duela milaka urte. Erresuma Batuen menpe egon zen 1947. urtera arte, eta handik bederatzi urtera aldarrikatu zuten errepublika. Indiaren alboan dago, eta gatazkatsua da bi herrialdeen arteko harremana, lurralde batzuen kontrola dela eta. Pakistaneko biztanleen %94a da musulmana.

AZALERA

796.095 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

207 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Urduiera, ingelesa eta ekialdeko panyabiera

“Duela 20 urte etorri ninten Pakistanetik, erabat audioarra naiz orain”

Pakistanen jaio zinen, baina urteak daramatzazu Aiaraldean bizitzen. Nola iritsi zinen?

Duela 20 urte etorri nintzen. Bartzelonan egon nintzen lehenbizi, ezagun batzuk nituelako bertan.

Hortik etorri zinen hona?

Lan eta egoitza baimena lortu nuen bertan, baina lana topatu nuen Aiaraldean, eta hemen geratu nintzen.

Lan kontuengatik etorri zinen orduan.

Hala da. Pakistanen ez dago lan-aukera askorik. Nire anai bat Greziara joan zen lehenbizi, eta bere atzetik joan ginen gainontzekoak, bizitza hobea baten bila.

Bigarren Hezkuntza egin nuen Pakistanen. Lanen bat ere izan nuen, baina ezer gutxi. Zaila zen familiak seme-alaba guztiak

mantentzea eta zaila zen ere Pakistanen ikasketak aurrera ateratzea. Irakasleak etxerako lanak bidaltzen zizkigun. Baina etxera iristen ginenean ez genuen argirik, eta ezin genituen lanak egin, eta hurrengo egunean irakasleak jo egiten gintuen. Gauzak aldatu dira, baina nire garaian oso latza izaten zen klasera joatea.

Hona etorri nintzenean beste planeta batean egongo banintz bezala sentitzen nintzen. Gaizki pasa nuen hasieran. Ez nuen hizkuntza menperatzen eta ez nintzen komunikatzeko gai. Lanean pozik nengoen, baina oso lan gorrak egin nituen.

Gainera, hasieran ez geneukan telefono mugikorrik, eta eskutitzen bidez komunikatzen nintzen familiarekin. Hilabete bat baino gehiago behar zuen gutun batek hemendik Pakistanera iristeko. Zailtasunak izan nituen bai-

ta alokairu bat lortzeko. Ez nuen familiarik hemen, eta jendea ez zen fidatzen.

Zorionez, jende askok lagundu nau. Zinez eskertzen diet audioarrei emandako laguntza. Hafiz deitzen ninduten lehen, eta orain Afitzu deitzen naute gehienek, hori baita nire izen euskalduna (barreak).

Kontakturik mantentzen duzu Pakistanekin?

Bai, nire gurasoak bertan bizi dira. Baina nire anaiak European daude: Italian, Norbegoian eta Ingalaterran. Nire ama Italian eta hemen egon da batzuetan, baina kosta egiten zaio Europara ohitzea, ez duelako hizkuntza menperatzen eta ez duelako bere jatorriko jenderik ezagutzen hemen.

Baduzue elkartzeko ohitura-rik?

Ez gara ia inoiz biltzen, bidaiak garestiak direlako. Baina astero hitz egiten dugu telefonoz. Nire emaztea Pakistanen dago, eta trasteak egiten ari naiz hona etorri dadin. Baina oso zaila da, bost urte daramatzat burokrazian murgilduta. Nik urte asko behar izan nituen Espainiar nazionalitate eskuratzeko.

Horrez gain, ez dut inoiz Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta bezalako laguntzarik jaso, ez nekien ezta existitzen zirenik ere, inoiz ez ninduten horien inguruan informatu.

Laudion geratzeko asmoa duzu?

Noski. Orain erabat audioarra sentitzen naiz. Lagun ugari egin ditut, eta ezkontza zein hiletetara gonbidatu naute. Kultura ezberdinak daude, baina guztiak gara bidaiariak mundu honetan.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

